

Herririk Herri |2|

Goi-tentsioko linearen aurkako manifestua sinatzeko batzarra, bihar, Berrizen



Berbaz |8|

A. Mendiolagarai: "Egoera aldatu eta dirua sartzean egingo da kutur etxea Zaldibarren"

Kultura |11|

'Durango 80' dokumentalari buruz, Unai Iturriaga eta Bideografik-eko sortzaileekin

Mendi ibilbideak biziberritzeko akordio zabala adostu dute

- > Inguruetako 11 udalek, zazpi mendi taldek, hipika talde batek eta Urkiola Landa Garapenak sinatu dute
- > Mendi ibilbideen mantenua eta sustapena elkarlanean egitea du helburu hitzarmenak

2

'Pedro Horriloren Udaberriak' klasikoa jokatu da bihar

KIROLA • Arratsaldeko 16:00etan abiatuko da lasterketa. 120 txirrindulari inguruk parte hartuko dutela jakin eragin dute antolatzaileek, tartean, kadete mailako talde indartsuenetako txirrindulariek. Iaz ez bezala, Elorrioren hasi eta Elorrioren amaituko da 39,8 km-ko lasterketa. Elorrioko txirrindulari elkarteak antolatuta du proba, Elorrioko Udalagaz elkarlanean.

15



Asier Arroita

Euskararen testiguak pausoz pauso batu ditu Durangaldeko herriak, gauez

Durangaldea • Gauez eta desorduetan egokitu arren, 17. Korrikak erantzun jendetsua eta koloretsua jaso du beste behin. Mallabitik sartu eta Elorriotik irtetzen, Zaldibar, Berriz, Abadiño, Iurreta, Durango eta Atxondo zeharkatu ondoren. Durangon, Landako etorbideko tartean, Berbarok, Plateruenak eta Anbotok eroan zuten testigua.

2

•Otxandio

Andikona plazako lanen bigarren fasea hasiko dute

3

•Durango

Kale izendegian aldaketak onartu ditu udalbatzarrek

4

•Elorrio

Zenita auzoko ondare historikoa ezagutzeko ibilbideak

6

•Iurreta

A-8 autobideko langileek mobilizazioak hasi dituzte

7

ALKIMAX

Alquilamos soluciones

Eitua Industriegunea
71C
48240 BERRIZ
(Bizkaia)
94 682 45 50
www.alkimax.com
alkimax@alkimax.com

HERRIRIK HERRI >

DURANGALDEA

Ibilbideak seinalizatu, zaindu eta mantentzeko elkarlanean jardungo dute oraindik aurre-ra eskualdeko udalek, mendizale eta hipika taldeek eta Urkiola Landa Garapena elkarteak. Gaur hitzarmena sinatu dute mendi ibilbideak sustatzeko, eta urtero ibilbideen egoera aztertzeko eta zaintzeko ekintza planak eratuko dituzte.

Urkiola Landa Garapena elkartearen ekimenez sortu da hitzarmena, eta, besteak beste, hainbat eskari izan dituen GR 38 ibilbidea zaintzeko balioko du.

Udaberri honetan zehaztuko dute urte honetan zer aldaketa eta konponketa egingo dituzten ibilbideetan. Hitzarmenaren sinatzaileek ibilbide horiek erabiltzearen garrantzia nabarmendu dute, euren esanetan "erabileramantenerako eta kontserbaziorako modurik eraginkorrena" delako.

Ardurak banatu dituzte

Hitzarmena sinatzeagaz batera sinatzaile bakoitzak ardura bat bere gain hartzeko konpromisoa hartu du.

Mendi ibilbideak zaintzeko hitzarmena sortu dute

Mantenua elkarlanean egingo dute Urkiola Landa Garapena elkarteak, eskualdeko hainbat udalek, mendizale taldeek eta hipika klubek

Mendizale elkarteek eta hipika klubek ibilbideak aztertu eta horiek hobetzeko ekintzak proposatu dituzte.

Udalen esku egongo da ibilbideetan egingo diren ekintzak zehaztea eta horiek finantzatzea.

Urkiola Landa Garapenak, bere aldetik, aurrekontua prestatuko du eta adostutako ekintzak burutzea bere ardura izango da. Ibilbideak zehaztuz emateko eta herritarrek erabiltzeko beharra egingo du.

Elkarte eta erakundeetako ordezkariak gaur egin dute sinadura ekitaldia Berrizen, Urkiola Landa Garapena elkartearen egoitzan. ■ A. Ugalde

Udaberriari zehar zehaztuko dituzte aurten urtean egin beharreko konponketak

Elkarteek proposamenak egingo dituzte, udalek diruz lagunduko dute eta ULGk ekintzak burutuko ditu

SINATZAILEAK

Honako herrietako udalak:

Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Garai, Iurreta, Izurtza, Mallabia, Mañaria, Zaldibar eta Zornotza.

Mendizale taldeak:

Alpino Tabira, Asuntze, Zaldai, Zaldua, Erdella, Alluitz eta Zornotza

Urkiola Landa Garapena elkarteak

Kati-bi klub hipikoa

Web berriak Iurreta, Zaldibar eta Otxandioko udaletan

Webguneak eraberritu dituzte egunotan Iurreta, Zaldibar eta Otxandioko udalek. Iurretakoa "plataforma moderna, intuitiboa, erabilgarria eta eduki berriekin osatua" dela dio te udal arduradunek, informazioa "argi eta azkar eskaintzeko".

Zaldibarkoen iritziz, "webgunearen bitartez udaletxeagaz izapide telematikoak egiteko aukera eskainiko zaie herritarrei". "Hori ahalbidetzea webgunearen helburu nagusietako bat" dela azpimarratu dute.

Otxandioko web berrituan egitasmoen berri jaso daiteke, eta irudi zein bideo eskaintza ere badago. Dokumentuez gainera, zenbait herritarren blogak ere txertatu dituzte. Inkestak egiteko atalak ere badu lekua. ■ M. O.

Durangaldeko euskalariak berotasunez hartu zuten Korrika

Korrika gauzez etorri izanak ez zituen Durangaldeko euskalariak kikildu; Mallabian sartu eta Elorrion irten arte, euskaltzaileen berotasuna jaso zuen



Durango testigua eraman zuten 26 ordezkariak argazkia atera zuten Andra Marian. K. Aginako

Gauzez eta desorduetan zetorrela eta Durangaldeko Korrikari merezi moduko harrera egingo ote zion zalantzak zituenak, lasai bilduko zituen begiak ekimenean parte hartu eta oheratu zenean. Durangaldeko harrera jendetsua, koloretua eta ozena egin zion Korrikari. Mallabian sartu, Zaldibar, Berriz, Abadiño, Iurreta, Durango eta Atxondo zeharkatu, eta Elorrion irten arte euskaltzailez babestuta ibili zen 17. Korrika.

Maitatu, ikasi, ari... euskalari leloa bere eginez, maitasunez egin zuten arineketan korrikalariak. Durango 26 ordezkariak eraman zuten testigua, eta Landa-ko etorbideari zegokion tartea Berbaro euskara elkarteak, Plate-ruena kafe antzokiak eta Anbotok batera osatu zuten.

Durangaldeko AEK-k gutun baten bitartez ekimenan parte hartu duten guztiei esker ona adierazi die, eta, "hurrengoan ere

denok beharko zaituztegu", gogoratu dute, "Korrika hain ederra eta arrakastatsua izan dadin". 17. Korrika Donostian amaiatuko da domekan.

Nagusiaz gainera, Korrika txikiak ere antolatu dituzte herririk herri. Horrela, Durangaldeko ikastetxeetako gaztetxoek ere bat egin dute euskararen aldeko Korrika ekimenagaz. ■ J.D.

> Bideoa: www.anboto.org



Berrizko udaletxean zapatuko batzarraren berri eman zuten.

Goi-tentsioko linearen kontrako manifestua sinatzeko deialdia

Lineak eragingo liekeen herrietako udalak "herri oposizioa" egitera deitu ditu Lurra erakundeak

Gueñes-Itsaso goi-tentsioko linearen kontrako manifestu bat sinatzeko batzarra egingo dute bihar, eguerdian, Berrizko probalekuan. Linearen kontra dauden herrietako udal ordezkariak batu-ko dira batzar horretara, Lurra lurraren defentsarako erakundearen deialdiari erantzunda.

Sinadura ekitaldian egongo dira, besteak beste, Berrizko, Mallabiko eta Garaiko alkateak. Lurra ordezkariaren prentsaurrekoan agertu dira asteon alkateak, eta proiektuaren kontra dardela berretsi dute.

Gasteiz-Castejon lineagaz ere tokiko erakundeetako ordezkariak antzeko deialdia egin zietela azaldu dute Lurra ordezkariak, eta

Manifestua sinatuko dutela azaldu dute Garai, Mallabia eta Berrizko alkateak

"herri oposizioagaz" proiektua geratzeko lortu zutela nabarmendu dute. Durangaldean Iurreta, Garai, Berriz, Mallabia eta Zaldibarri eragingo lieke goi-tentsioko lineak. ■ A.U.

ATXONDO

Atzo eta gaurko dantzariak jairako eta omenaldirako batu dira

Taldeak aurrera egiteko behar egin duten lagunak omendu ditu Andasto dantza taldeak



Ehun bat dantzari batu ziren alardean

Andasto dantza taldeak deituta, ehun atxondar inguru batu ziren joan zen zapatuan dantzarako. Orain dantza taldean dabilzan umeak eta gazteak zein azkeneko duela berrogei urte dantzan egin-dako helduak izan ziren dantzari, eta arratsaldean hasitako jaia goizaldera arte luzatu zuten batzuek.

Arratsaldean dantza saioak egin eta gero, Apatako frontoian afaritarako batu ziren 350 bat

lagun. Afal aurretik omenaldia egin zuten dantza taldea aurrera ateratzen lagundu duten txistulari, irakasle eta dantzari. Zapatuan dantza egin zuten "beteranoei" ere esker ona adierazi zieten.

Gauean, Luhartz taldearen erromeria egon zen, eta, bertan, zelan ez, dantzan amaitu zuten eguna jaira batutakoek. ■ A.U.

> Bideoa: www.anboto.org

OTXANDIO

Esleitu dute Andikona plazako beharren bigarren fasea

Nestor Basterretxearen eskultura eraikitze lanak ere eman dituzte

Andikona plaza eraberritze-ko bigarren faseko lanak adjudikatu berri ditu udalak. Atal honetan obra zibila amaitzeko egiteko dagoena kokatzen da: argiteria, errementaritz eta zurgintza lanak. Guztira, 75.000 euro inguruko aurrekontua dute.

Nestor Basterretxearen eskultura eraikitze lanak ere emanak daude; 18.000 euroko aurrekon-

tua dute. Gainera, bonbardaketan hildako guztien izenak jasoko dituen horma ere eraikiko dute la adierazi dute udal arduradunek. Bonbardaketaren 75. urteurrena-

Eskulturagaz batera, hildako guztien izenak jasoko dituen horma ere eraikiko dute

ri begirako gainerako ekimenak ere martxan daudela azaldu dute.

Korrika

Otxandiotik ez da pasatuko aurturten AEKren ekimena, baina Korrika batzordeak egitaraua eratu du gaurko. 18:30ean bost kilometroko lasterketa hasiko da, eta gauean lagun arteko afaria egingo dute Mainondon. ■ M.Onaindia.



Uztaileko ekitaldietarako prest izan gura dute plaza.

XVIII DURANGOKO PASIÑOIA

2011 • APIRILAREN 20, 21 ETA 22AN • 21:15 • SANTA ANA PLAZAN

JUAN DE ICIAK ELKARTEAK
ANTOLATUTA

juan de icia
kultur elkartea



durango

IRTENALDI LABURRAK

GRAN HOTEL DURANGO ****	90 €
HOTEL KURUTZIAGA ***	70 €
ERROTA PENTSIOA **	48 €
JUEGO BOLOS OSTATUA *	47 €


BARNEAN DAGO: Bi pertsonentzako ostalua, gosariak, bisita gidatua eta "Pasiñorako" sarrerak.

BEZA SARTU GABE DAGO



info + : 94 603 39 38

turismoa@durango-udala.net



Bizkaia

DURANGO

Kale izendegian aldaketak egin dituzte toponimia ikerketan oinarrituta

Batzorde berezia antolatuko dute ikerketaren ondoren sortutako kale izenak bideratzeko

Saibigain kalea Saibi kalea izatera pasatuko da, eta Fray Juan de Zumarraga, Frai Juan Zumarraga, euskal ortografiagaz. Alberto Errastiren toponimia ikerketan oinarrituta kale izendegian aldaketak egitea onartu du udalbatzak.

Alderdi gehienek aldaketak "lehen pausua" direla azaldu dute, eta kale izenen aldaketarako batzorde berezia sortzea adostu dute. Talde Mistoak abstenitu egin da, "eztabaida sakonagoa behar delako". PPK kontra bozkatu du.

Faustegoiako kale berrietarako izen bi onartu dituzte: Ramon Rubial eta Jesus Mari Leizaola

Rubial eta Leizaola

Aldaketez gainera, Faustegoiako kale berrietarako Ramon Rubial eta Jesus Mari Leizaolaren izenak ipintzea erabaki dute udalbatzarrean. PSE-EEk eta EAJk adostuta izenek eztabaida sortu dute.

Aralarrek eta Talde Mistoak "inkoherentzia" salatu dute: "bi kale berri ideologikoki lerrokatuak izango dira", Aralarren ustez. Talde Mistoak azaldu du "toponimia ikerketa bultzatu eta gero PSE-EEk eta EAJk 'kromo aldaketa' egin dutela, 'bakoitzak bere prisma izena proposatuz'".

EAJk eta PSE-EEk pertsona horiek "balore demokratikoak momentu gaitzetan defenditu" zituztela eta kaleei euren izena ipintzea "omenaldi justua" dela aldarrikatu dute. ■ A. Ugalde.



Frai Juan Zumarraga euskal ortografiak idatzi beharko da.

ALDAKETA BATZUK

Andra Mari kalea
Andra Maria kalea
Arripuzeta auzunea
Arripausueta auzunea

Fauste kalea
Fauste bide kalea

San Roke kalea
Sanrokebide kalea
Santa Susana kalea
Santasusananoste kalea
Tabira kalea
Tabirabide kalea
Zabale kalea
Zabalekoa kalea

Eskolako Bidea egitasmoa abiatu dute Landako Eskolan

"Eskolarako joan-etorriak zelan egiten diren aztertu eta kutsadura-emisio bako joan-etorriak bultzatzeko" egitasmoa da Eskolako Bidea. Proiektu hori martxan ipini dute Landako Eskolaren inguruko mugikortasuna aztertzeke eta hobetzeko.

Lehen pausua diagnosia egitea da, eta horretarako eskolako umeek mugikortasun inkesta bat bete dute. Durangoko Udaleko Tokiko Agenda 21etik bultzatu dute egitasmoa. Aitziber Irigoras alkateak adierazi duenez, "motordun ibilgailuak alde batera utzi eta helduen laguntza barik ibilbide seguruetatik egindako joan-etorriak" bermatu gura dituzte. ■ A. U.

Errotaritxuenako etxebizitzak zozketa eguaztenean

Datorren apirilaren 20an Errotaritxuenako auzoko 58 etxebizitzak zozketatuko dituzte, San Agustin Kultur Gunean. Eguerdiko 12:00etan egingo da zozketa, notarioaren aurrean eta programa informatiko bat erabilita.

Zozketarako zenbakia 638 pertsonak daukate.

Hainbat kopuru daude eta zozketak kopuru horien arabera egingo dituzte. Lehenengo minusbaliotasuna daukatenentzako zozketa izango da. Gero Etxebiden izena emanda lau urte baino gehiago daramaten pertsonen txanda izango da, eta gainerakoentzako etxeak amaieran zotz egingo dituzte. ■ A. U.



EAJk proposamenak eta zerrenda aurkeztu ditu



Trena lurperatzean etorbide berri bat egitea eta Memoria Historikoaren Behatokia sortzea daude EAJren hauteskunde programaren barruan. Martitzenean hauteskundeetarako zerrenda aurkeztu zuen Durangoko EAJk.

Aitziber Irigoras zerrendaburuak alderdiaren proposamenak azaldu zituen. Babeseko etxebizitzak sortzea, merkataritza eta eskualdeko turismoa sustatzea eta Eguzkitzagoienako industrialdea bultzatzea dira EAJren asmoak. ■ A. U.

ZALDIBAR

Langile euskaldunen zerrendak osatzen

Zaldibarko Udal Euskara Zerbitzua langile euskaldunen zerrendak osatzeko lanean dabil. Hainbat lanetarako behar dira behar-ginak: ume eta adinekoren zaintzarako, kirol-begirale zein aisialdi-begirale izateko eta eskola partikularrak emateko.

Maiatzaren 6a izango da zerrendetan izena emateko azkeneko eguna

Zeregin horietarako prest dauden herritar euskaldunei izena emateko deia egin die udalak; maiatzaren 6a izango da izena emateko azkeneko eguna. Maiatzaren 11tik aurrera izango dira prest zerrendak.

Haurreskola

Bestalde, Haurreskolan izena emateko epea iragarri du udalak: maiatzaren 2tik 13ra egongo da zabalik. Informazioa Haurreskolan bertan eskuratu behar da, azaldu dutenez. ■ M. O.

GARAI

Udalekuetan izena emateko epea zabaldu dute jadanik

Garaiko Udalak herriko txikiene-dako udalekuak antolatuko ditu aurtien ere, ekainaren 27tik uztailaren 15era bitartean. Bertan izena emateko aukera badago dagoeneko, eta maiatzaren 6an itxiko dute zerrenda.

Goizez garatuko dira udalekuak, 09:00etatik 13:00etara; salbuespenik egotekotan, arratsaldean irteeraren bat eginez gero izango da. Hiru eta hamairu urte bitarteko umeek eta gaztetxoek parte hartu dezakete udalekuetan. Inskripzioa egiteko eta informazioa jasotzeko udaletxera jo behar dute interesdunek. ■ M. O.

Hurrengo eraikuntza

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea • Tel.: 94 681 66 73
Iurreta • www.zarateylexpe.com

Elorrion ere aukera onak

GALLASTEGI
gallastegiharategiak@euskalnet.net

1955 ean sortua

Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

**GURE AUKERAKO
IBILGAILU GUZTIEK
ERABATEKO BERMEA DUTE.**

ERANTZUTEN DUGU.

*Andonik
esana*

Andoni Baños,
Goursako Aukerako
Ibilgailuen arduraduna.



**RENAULT MÉGANE
DYNAMIQUE**

1.5 dCi 105zp. 2009 urtea.

13.500€

**RENAULT
OCASIÓN**

ZUK DENA NAHI DUZULAKO.

PSP Transferentziako gastuak barne 2011/04/31 arte edo izakinak amaitu arte balio duen eskaintza.



GAURSA ARRIANDI 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA. GRAN VÍA 65. TEL. 94 441 74 50. BILBAO. www.goursaautoak.com
BILBO BERRI JON ARROSPIDE 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTO.

ELORRIO

Zenitako errotak, Uratsa eta Argiñeta bisitatuko dituzte ibilbide gidatuetan

Apirilaren 23, 24 eta 30ean eta maiatzaren 1, 7 eta 8an izango dira bisitak



Zenitakolea baserriaren aurrean, 2008an egindako bisitan.

Zenitakolea baserriko errota martxan ikusi, Uratsako ura bainuetxean zertarako erabiltzen zen ikasi, Argiñetako hila-riak nondik datozen entzun... Herriko ondarea ezagutzeko Zenita auzoan zehar bisita gidatuak antolatu ditu Elorrioko Udalak apirila eta maiatzerako.

Duela hiru urte egin zituzten lehenengoz bisita gidatuak, eta orduan izan zuten arrakasta ikusita, aurten errepikatzea erabaki du udaleko Kultura eta Turismo Sailak.

Lourdesko Ama ikastetxetik hasi eta Zenita inguruan ordu bi inguruko bisitak egingo dituzte ibilaldietara animatzen direnek. Bisitan, arbasoen bizimoduaren inguru-

ruko argibideak emango dituzte; erroten Zenitan zuten garrantzia, garbiketa non zeuden, erabakiak hartzeko zelan antolatzen ziren... Hainbat galderari erantzuteko bisitak izango dira.

Lourdesko Ama ikastetxetik 11:00etan hasiko dira ordu bi inguruko bisitak

Ibilbide gidatuetan parte hartzeko Iturri kultur etxean eman behar da izena

Zuberoako kirolariek in Zazpiak Bat Eguna, bihar, Errekakaleko jaietan

Traña-Matienako Sanprudentzioekin bat ez egiteko, aurreratu egin dituzte jaiak aurten

Aste Santua eta gero barik, aurreko asteburuan ospatuko dituzte aurten Errekakaleko jaiak. Berrikuntza batez datoz aurten, gainera: Xiberoko Boza irratia eta udalak elkarlanean Zazpiak Bat Eguna antolatu dute biharko. Kirol eta jai giroa ziurtatzeko egitaraua prest dago.

11:30ean Mendikota (Zuberoa) eta Elorrioko taldeek errugbi partidua jokatuko dute, eta 12:30ean Mauleko pilotariek Elorrioko ena kontra edukiko dituzte partidak plazako frontoian. Herribazkaria egingo dute 14:30 alde-

ra. Arratsaldean, pilotako Joko Garbi erakustaldia eskainiko dute, eta seiak aldera trikipotea edukiko dute kantu herrikoiekin.

Kontzertuak

Gaur gauean hasiko dute Bizixo kaleko jaien egitaraua. 23:00etan hasita, lau taldek eskainiko dute kontzertua: Sermonds, Sugoi, Pixontxis eta Murder Pink. Bihar iluntzean erromeria egongo da Tximeletagaz, eta Gaztetxean Xarmak eta Cobrak emango dute kontzertua; Ateneoa ere zabalik egongo da, DJ Makalagaz. ■ A.U.

Sei bisita antolatu ditu udalak. Euskaraz, apirilaren 23an, maiatzaren 1ean eta 7an izango dira bisitak; gaztelaraz, berriz, apirilaren 24an, 30ean eta maiatzaren 8an. Ordu bi inguruko ibilbidea hasteko goizeko 11:00etan Lourdesko Ama ikastetxean elkartuko dira bisitariak.

Izena emateko

Bisitetan parte hartzeko Iturri kultur etxean eman behar da izena. Bertara gerturatuta egin daiteke erreserba, edo, bestela, telefonoz -94 603 20 30 zenbakira deituta- edo posta elektronikoz -iturri@elorrio.net helbidera idatzita-. Ibilbidea egiteko euro bat ordaindu beharko da. ■ A.Ugalde.

Herriko andren historia batzen duen liburua aurkeztuko dute

Elorrioko historia emakumeen ahotik: atzoko hitzak josten liburua bihar 12:00etan aurkeztuko dute udaletxeko pleno aretoan. Liburua Amaia Nicholson Gorostiaga eta Leire Goitisolo Zumaran antropologoen azkeneko hileotan egindako ikerketaren emaitza da.

“Emakumeek gizarteari egindako ekarpena ezagutzeko” helburuagaz udalak beka ateratu zuen herriko emakumeen historia aztertzeko. Besteak beste, emakume elorriarren testigantzak batu zituzte antropologoen liburuan, eta baita eztabaida-taldeetan jasotako iritzia eta ondorioak ere. ■ A.U.

BERRIZ

Udaleku irekietarako data eta izen-emateak finkatu ditu udalak

Begiraleak kontratatu ahal izateko eskabideak maiatzaren 13rako aurkeztu beharko dira

Udaleku irekiak uztailaren 4tik 22ra bitartean egingo dituzte Berrizen, eta udalak zehaztu du izena emateko prozedura begirale zein gaztetxoentzat. Learreta-Markina ikastetxean garatuko da udako ekintza hori.

Prentsa oharrean azaldu dutenez, begiraleak udalak berak kontratatuko ditu zuzenean. Begirale izateko gutxienezko baldintza modura 18 urte edukitzea, euskara maila ona erakustea eta begirale ikasketak zein titulua izatea ezarri dituzte. Interesa dutenek maiatzaren 13rako eskabide orria aurkeztu beharko dute udaletxean, beharrezko dokumentazioagaz batera. Izena ematen

Interesa duten begiraleek maiatzaren 13rako aurkeztu beharko dute eskabide orria

dutenen artean, udalekuetako koordinatzaileak ere aukeratu dituzte.

Gaztetxoentzako izen-emate epea maiatzaren 23tik 31ra bitartekoa izango da

Bi mailatan burutuko dira udaleku irekiak: Txiki-txoko lau urteko umetxoentzat eta Gaztetxoko LH1-LH6 mailara artekoentzat (12 urte). Izena emateko epea maiatzaren 23tik 31ra bitartekoa izango da; udaletxean edo ikastetxean jasotako eskuorria bete beharko dute gurasoek horretarako. Prezioa, izena ematen duten seme-alaba kopuruaren arabera, izango da: bakarra 60 euro, bi 50 euro bakoitzeko, eta hiru baino gehiago izaneko gero 40 euro bakoitzeko. ■ M.O.

ABADIÑO

Udalaren gastua zelan murriztu aztertuko dute

Martxoko udalbatzarrean ez zuten bozketa egin, gaia Ongizate Batzordean jorratu dadin aurretik

Gaur izango dute Ongizate Batzordeko mahai gainean martxoko udalbatzarrean gai-ordenean jasota zegoen arren bozkatu barik utzi zuten udalaren gastuaren murrizketari buruzko proposamena: Espainiako Gobernuak iaz

lazko moduan, bete barik dauden udaleko lanpostuei diru-kopururik ez esleitzea da gobernuaren proposamena

agindutako udalen defizitaren murriztapenerako, joan zen urteko ereduagaz jarraitzea proposatu du Talde Independenten udal gobernuak. Udaleko lanpostuen zerrendan bete barik dauden lanpostuei diru-kopururik ez esleitzea da udal gobernuak iaz udaleko langileen batzordeagaz adostu zuena; beste udal batzuetan legez, %5eko murrizketa langileen soldatan aplikatu barik, aurten ere iazko erdua jarraitzea proposatu du udal gobernuak. ■ I.E.

MALLABIA

Ikastetxeko gelak berriztu egingo dituzte oporretan

Ekainaren 23an hasi eta hile bian lehenengo hezkuntzako gelak eraberritu gura dituzte

Mallabiko Udalak Learreta-Markina ikastetxeko lehenengo hezkuntzako gelak eraberritu gura ditu, eta lanak esleitzeko lehia-keta hasi du. Lanak esleitzeko prozesua orain hasi dute, baina obrak udako oporretan gauzatu dituzte; ekainaren 23tik abuztuaren 23ra, hain zuzen ere.

Kontratuaren prezioa 310.500 eurokoa izango da eta negoziaketa-

ta bidez emango da. Oinarri guztiak Mallabiko Udalean eskuratu daitezke, eta www.mallabia.org webgunean ere eskegi dituzte.

Goi tentsioko linea

Bestalde, azken udalbatzarrean goi tentsioko linearen kontrako mozioa onartu zuen udalbatzarra, aho batez. Proiektua bertan behera uzteko eskatu dute. ■ J.D.

Durangaldean labur

Retoalcoa lehiaketan Maristak garaile

Apirilaren 7an eta 8an Retoalcoa lehiaketako Espainia mailako finala jokatu zuten Madrilen, eta Maristak ikastetxeko Jon Escolar, Alberto Fuentes eta David García izan ziren garaile. Mari Jose Martín tutoreak eta Kepa Bastegietak irakasleak babestu zituzten hirurak. Fikziozko enpresa bateko zuzendari lana bete behar zuten.

Zapatero eta Lopez, domekan Durangon

Domeka honetan Larrosaren Festa ospatuko du PSE-EE alderdiak Durangon, Landako Gunean. Bertan izango dira Jose Luis Rodriguez Zapatero Espainiako presidentea eta Patxi Lopez lehendakaria, gainontzeko alderdikideekin eguna ospatuz. 2005ean ere izan zen Zapatero Durangon, motibo beragaz.

Goi tentsioko linearen aurkako informazioa

Durangaldeko AHT Gelditu Elkarlanak eskuorriak banatuko ditu Durangon, gaur arratsaldean eta bihar eguerdian, goi tentsioko linearen proiektua salatzeko asmoz. “Red Electrica de Españaren (REE) arabera”, salatu dute Elkarlanekoek, “beharrezko beste azpiegitura bat AHTk eragingo duen gastu energetikoari aurre egiteko”.

Ume saharaiak hartzeko epea luzatu egin dute

Elorrioko Udalak deialdi berezia egin die udan etxean ume saharaiak hartu gura dituzten familiei. *Oporrak* bakean ekimean izena emateko epea luzatu egin du udalak, maiatzaren 16a arte. Eskuorriak banatu dituzte herrian, eta informazio gehiago jaso gura duenak udaletxean galdetu dezake.

IURRETA



Apirilaren 11n eta 13an mobilizatu ziren, 08:00etatik 08:30era eta 18:00etatik 18:30era. A.Ugalde

A-8 autobidean mobilizazioak hasi dituzte langileek

Itun kolektiboaren negoziaketan “blokeoa” salatu dute Aubisako langileek

Hitzarmen kolektiboaren negoziaketan “emandako blokeoa” salatzeko mobilizazioak egin dituzte, asteon, A-8 autobidearen ordainlekuan. Autobidea kudeatzen duen Aubisako langileen berbetan,

Negoziaketan aurrean enpresak erakutsitako “gogo ezak” mobilizatuarazi ditu

negoziaetek 2009tik diraute, baina, “benetako edukia eta mamia” izan dezaten enpresak erakutsitako “gogo ezak” eroan ei ditu mobilizatzera. Ordu erdiko kontzentrazioak egin zituzten astelehenean eta eguaztenean. ■ A.Basauri

Euskararen arloan dauden “hutsuneak” bete guran

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia aztergai

Euskararen erabilera sustatzeko emandako pausoei jarraitzea, herritarren hizkuntza aukera “beti eta egiazki” errespetatzeko ahalegina sendotzea, ezagutza eta erabilera areagotzea eta hizkuntza

politika garatzeko ahalik eta adostasun handiena lortzea: helburuotan oinarrituta Euskara Biziberritzeko I. Plan Nagusia (EBPN) egin gura dau Iurretako Udalak. Lan horretarako 2011ko aurrekontuan

jaso dituzte 13.000 euro eta, orain, enpresa bat kontratatu gura dute. Horiek horrela, orain arte bidean emandako pausoak eta egindako ekintzak batzeko “tresna bateratua” lortu gura dute, Iñaki Totorikaguena alkatearen berbetan: “Arlo askotan dauden hutsuneak gainditzeko konpromisoa eta betebeharrak azalertzeko ere balioko du”. Arlo guztiak batuko lituzkeen ekintza plana lotu gura dute; diagnosi bat egitea ere aurreikusitako dute. ■ A.B.

IZURTZA

Bake epailea beste hiru herrigaz partitzea eskatzeko adostasuna

Bake Epaitegiaren zereginak udaleko idazkariak burutzen ditu gaur egun lau herri hauetan

Bake Epaitegiaren Elkartearen eratzeari buruzko txostena aho batez onartu zuten joan zen barikuko Izurtzako udalbatzarrean, Iurretako udalaren proposamenagaz bat eginez: orain arte Izurtza, Iurreta, Atxondo eta Mañarian, herriko idazkariak eta idazkari-laguntzaileak burutu zituzten Bake Epaitegiaren dagozkion lanak egiteko Eusko Jaurlaritzari lau

Izurtza, Iurreta, Atxondo eta Mañarian jardungo duen funtzionarioa kontratatzea eskatuko diote Jaurlaritzari

herriotan lan egingo duen funtzionarioa kontratatzea eskatuko diote lau udalok. Izurtzaren kasuan, idazkariak egunean udaletxean burutzen duen hiru ordu eta erdiko lanaldian, Bake Epaitegiaren dagozkion zereginak lan-karga handiegia suposatzen dutela nabarmendu zuten udaleko ordezkariak. Eusko Jaurlaritzari eskaria lau udalek elkarrengatik egitea da Iurretako udaletik Izurtzan jaso duten proposamena, eta proposamenagaz aho batez egin zuten bat, joan zen barikuan, Ezker Abertzaleko eta EAJko zinegotziek. ■ I.E.

MAÑARIA

Toti Martinez de Lezea berbaz Aste Kulturalean

Maiatzaren 9tik 15era ospatuko duten Aste Kulturalaren egitarauak jasotzen du berbaldia

Aurtengo Aste Kulturala emakumea protagonista nagusitzat hartuta antolatze asmoa dauka udalak, eta emakumei buruzko hitzaldia eskaintzeko gonbidatu dute Toti Martinez de Lezea idazle gasteiztarra Mañarira. Maiatzaren 9tik 15era ospatuko duten Aste Kulturalan hartuko du idazleak parte.

Aste Kulturalaren barruan herriko emakumei buruzko argazki erakusketa antolatze asmoa ere badute udalean. Erakusketa horretarako argazkiak batzeko, apirilaren 31 baino lehenago argazkiak *kultura.manaria@bizkaia.org* helbidera bidaltzea edo udaletxean aurkeztera deitu dituzte herritarrak. ■ I.E.

R.P.S. 21406

A. Urreta podólogo

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

Adinara Urreta Jainaga

PODOLOGOIA 188. Elkartegokidea

IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behea • 48200 DURANGO • Tel./Faxa: 94 621 54 04

Trañabarren 11, behea
48220 Matiena (Abadiño)
Tel.: 94 465 75 77
Mug.: 639 346 505
info@bagoaz.com

bagoaz

bidalak

Inaugurazio egunean, nekazaritza batean asteburu bateko egonaldiak egindako zozketa:

102 ZENBAKIA SARIDUN. ZORIONAK!

BERBAZ>

“Krisia ondo etorri daiteke dirua kudeatzeko beste era batzuk aztertzeko”

Legegintzaldi erdia zinegotzi eta beste erdia alkate, azken lau urteak “aberasgarriak” izan dira Idoia Mendiolagarairerentzat



Idoia Mendiolagarai •

- Zaldibarko alkatea
- Batzar Nagusietako juntakidea da, eta hauteskundeetan EAJko zerrendaburua izango da Durangaldea eta Arratiatik

Egoera ekonomikoak markatutako alkate-tza urteak izan dira Mendiolagarairenak. Urte bi horietaz eta etorkizunaz egin dugu berba beragaz.

Azken urte bi hauek zelan baloratzen dituzu?

Aurretik hasita zegoenari ahalik eta ondoen jarraipena egitea izan da nire asmoa. Urte politak izan dira niretzat, aberasgarriak. Labur egin zaizkit; denbora gutxi dira bi urte. Ahalegindu naiz alkatetzari nire ukitua ematen.

Zelako ikutua eman diozula esango zenuke?

Gustatzen zait jendeagaz eguneroko gaiei buruz berba egitea, eta zalantza eta arazoei konponbidea topatzen ahalegintzea. Azken finean, ni ere herritik nator. Udala herrira zabaltzen ahalegindu naiz. Herritar denona da herria, hori argi eduki behar dute herritarrek. Denon lana da herria zaintzea. Gastatzen den dirua denok ordaintzen dugu. Orain daukagun diru

“Zaldibar herri euskalduna da; 31 urtetik beherako denek dakite euskaraz. Arazoa denona da; ez dugu egiten”

arazoagaz daukagun gauzak mantendu egin behar ditugu, gainera; beste era batera ikusi behar dira gauzak.

Oran hilabete aurrekontuak onartu zenituzten Zaldibarren, murrizketa nahiko handiagaz...

Inbertsiotarako ez dago dirurik. Dagoen bitartean ez gara konturatzen dirua ez dagoen momentua heldu daitekeenik. Egun hori heldu da, eta krisi hau ondo etorri daiteke gauzak beste era batera egin daitezkeela ikusteko; dirua zelan kudeatu pentsatzeko burua gehiago nekatu beharko dugu.

Inbertsio nagusia haurtzaindegira bideratuko duzue aurten.

Udalak beti eduki du hori gogoan. Kalera irten ziren eskaerak, eta hor komunikazio falta eduki genuen. Arazoa izan da udala lana egiten

ibili dela, baina ez dugula komunikatu. Ikasturtea amaitzen denean hasiko dira obrak, eta ea irailerako haurreskola martxan dagoen.

Duela gutxi euskararen ordenantza onartu duzue. Zelan ikusten duzue euskararen egoera herrian?

Gurea herri euskalduna dela pentsatzen dut. Zaldibarren ikasi duten 31 urtetik beherako gazte guztiek euskaraz dakite. Hori asko dela pentsatzen dut, baina arazoa da ez dugula erabiltzen. Ordenantzagaz udalean gehiago inplikatzeko lortuko dugu. Lehen ere egiten zen, baina orain araututa egon eran, ordenantzak derrigortu egiten gaitu euskara erabiltzera.

Airean geratu den proiektuetako bat kultur etxearena da.

Behar handia da hori gauzatzeko. Elkarte denak batzeko

toki bat behar da, eta ekitaldiak egiteko ere bai. Diru falta da orain arazoa. Egin zen proiektua ez zen aurrera irten, sinadura batzuk batu zirelako kontra, eta horrela gelditu zen. Lehenetsunezko gauza da. Egoera aldatzen hasten bada eta dirua sartzen hasi, orduan egingo da kultur etxea.

Zer beste premia ikusten dituzu datozen urteetarako?

Zalduako plaza eta alde zaharra berriztatu behar dira, eta hiru zonaldean eskilara mekanikoak ipintzeko ideia ere hor dago... Baina hor lurra altxatzeaz gainera, lur azpiko hoditeria aldatu beharko genuke... Diru asko beharko da, eta hainbat fase-tan egin beharko da lan hori. Kotxeak, kamioiak... pisu

“Haurreskolako lanak irailerako amaitzea itxaroten dugu”

handiko trafikoa pasatu da bertatik, eta lurrak ez du ondo hartu hori dena. Nire ikuspuntutik, alde zaharra oinezkoentzat izan beharko litzateke. Ohituta gaude kotxez leku guztietara joaten, baina uste dut ohiturak aldatu eta kotxeak kendu beharko genituzkeela alde zaharretik. Horrez gainera, industrialdeko sarrerako azken fasea amaitzea ere premia handiko kontua da. Herri erditik pasatzen den trafikoa apur bat txikitu da; jendeak ohitura hartu du hortik sartu eta irten egiteko, baina kamioiak herritik ez pasatzeko sarrera hori amaitu egin behar da.

Zelan bizi dituzu azken hileak?

Lasaitasunez. Ahal den eta gauza gehien lotzen saiatzen nabil. Pozik nago egindakoa-gaz, eta eskerrak eman gura-nizkieke alderdiari, zinegotzi kideei eta, batez ere, herritarrei. Baten bati kale egin badiot, barkamena eskatu gura dut.

Ezker abertzale ilegalizatuak aukerak izango ditu datorren legegintzaldian egoteko?

Baietz uste dut, eta gainera eurentzako eta denontzako hori da onena. Denontzako lekua dago hemen. Pausoa eman behar dutela uste dut, eta badabiltzala pausuak ematen, eta eurengan konfiantza eduki behar dela uste dut. ■ A.Ugalde

ARRIBIDE



Ind. Arriandi P.1
48215 IURRETA
-Bizkaia-

Tel.: 94 681 83 81
669 72 20 44

www.arribide.com • estacionservicio@arribide.com

Hiru gasolina-bono ZOZKETAgai



15 euro

15 euro

Bialdu emaila zure datuekin
anboto@anboto.org-ra

IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Osakidetza, Durangoko anbulategia eta duintasuna

Gure amama gaixotu egin zen; ezin zeitekeen ezer egin. Horrek min egiten dau, baina ulertu daiteke. Eskatzen dozun bakarria gelditzen jakona ahalik eta ondoen bizitzea da; ez sufritzea.

Baina mina heltzen da, jasaezineko mina. Eta berarekin inpotentzia. Ezin daiteke ezer egin? Orduan aurkitzen zara medikuen pasibotasunarekin, ikusezinarekin, hoztasunarekin... Ez genduen tratatu berezirik espero, tratatu duin bat baik... eta gure amamak ez eban jaso. Ziur nago gure amamaren sufrimendua ez zela beharrezkoa, baina medikuek ezer gitxi egin eben.

Badakit gainezka dagozela, ez dela euren errua osasunerako hain beharrezkoa den dirua beste zentzugabekerietan xahutu izana... Baina horrek ez dau justifikatzen besteengana mepretxua.

Gelditzen jakun bakarria gure amama zenbat maite genduen jakinda joan zela da. Maite dogu eta maiteko dogu beti. Agur, amama.

Ainara Atorrasagasti - Durango

Txosna batzordeko deialdia

Kaixo lagunak,

Merezitako atsedendialdiaren ondoren, Durangoko Txosna Batzordeak lanari ekin behar dio berriz ere. Iazko jaiak nola joan ziren ikusita, beharrezkoa ikusten dugu ahalik eta azkarren lanean hastea; horrez gain, maiatzaren bigarren egunerako eskari orriak sartu behar direla gogoratu nahi dugu. Urtero legez, jai ahalik eta parte-hartzaileen artean egiteko asmoz, antolakuntzan parte hartzea dei egiten dizuegu Durangoko herritarrei, norbanako zein talde, eragile, mugimendu sozial...

Hurrengo hitzordua maiatzaren 5ean, 19:00etan izango da, AEK-k Pinondon duen egoitzan. Bertan ikusiko garelakotan.

Info+: <http://www.durangokotxosnak.org/>

Durangoko txosna batzordea

Sapuetxe aurrera!

Sapuetxe Gaztetxea duela 12 urte Durangoko Gazte Asanbladak bere beharizanez hobeto erantzuteko okupatutako etxea da. Topaleku bat da, gazteok batzeko espazio propio bat, eta askatasun osoz lan egin ahal izateko lekua, beste inon eskaintzen ez dugutena.

Sapuetxeren historia luzea eta aberasgarria izan da, gazte asko hazi eta hezi baita etxe honetan. Betidanik, bere 12 urteetan, behar sozial ugari bete dituen txoko bat izan da gure herri honetan, eta gazteei, udaletxeak ez bezala, eskaintza zabalagoa egin diona: tailerrak (gitarra, serigrafia, txalaparta, antzerkia, batukada...), musika lokala, bazkari eta afari herrikoiak, liburutegia, ekintza kulturalak (kontzertuak, antzerkiak, bertso saioak, monologoak...), hitzaldiak, eztabaidak, eta aski eza gundena. Azoka Alternatiboa, adibidez. Kultura beste era batean sortu eta zabaltzeko frogatu dugu, Euskal Herriko eta atzerriko musika talde askorentzako erreferente garrantzitsua izateraino. Eta gehitu beharra dago urteotan gure mezua ez dela batere aldatu: gaztetxea tresna bat da, eta autogestioa, helburua. Norbera bere bizitzaren jabe izaten ikastea, denon ametsa.

Sapuetxeko ateak beti egon dira durangar gazte guztiei zabalik, eta honen adierazle da hona gerturatu diren adin eta ideia desberdineko gazte mordoa, gaztetxea gazte askoren bizitzaren erreferente bihurtzerarte. Gainera, hainbat kolektiboren egoitza izan da eta izaten jarraitzen du, Durangoko kaleetan presentzia gorakorria duten taldeena barne. Izan ere, kolektiboen zein partikularren parte-hartzea oso garrantzitsua dela uste dugu gure hau denon artean eraiki eta kudeatu ahal izateko.

Gaztetxeak bizirik jarraitzen du, bere proiektuak bezala. Eskaintzen ez dugutena aurkitzeko aukerak sortzen ditugu, eta eraikinak berak askoren egunerokotasunari alternatibak ematen dizkio, harremanak egin eta jende desberdina ezagutzeko espazio batez gain, askok ezagutu eta ezagutuko duten jai giro desberdina eskaintzen duena, beste herri batzuetan gustuko dena ere. Edozein durangar bere etxean onartzerara ausartuko ez litzatekeen errekurtsorik gabeko etorkinei ere bizitzeko leku bat ematen die, eta badakigu ez gabiltzala oker.

Beraz, hainbeste aukera eta itxaropen sortzen eta sortuko dituen gure etxe hau denoi kendu eta birrintzearen aurrean, geroz eta bide txarragotik doan gizarte honetan, gure autonomiaren alde lanean jarraitzea erabaki dugu, gaztetxea erabiltzen dugunon eta etorkizunean erabiliko dutenen izenean.

Durangoko gaztetxea botatzea 2011. urteko aurrekontuetan sartzeko udalaren erabakiak, eta hau zuzenean sufritzen duen kolektiboari hitza eman ez izanak, martxoaren 29ko osoko bilkuran gure esku-hartzea bultzatu zuela adierazi nahi dugu. Gure salaketa udaleko gobernu taldeari eta bere kideei zuzenduta dago, herritarren aurrean arazo hau isildu nahi izan dutelako.

Horregatik, durangarrei gogoeta egitera deitu nahi diegu, erabaki honen ondorioak sufritzen ez dituztela uste duten arren, gure herriko gazteen ilusio eta aukera berriak lurrera botatzea euren poltsikotik pasatuko delako, 200.000 euro inguru. Baina hau, noski, ezin zaie herritarrei saldu hauteskundeetatik hain gertu.

Bukatzeke, eskerrak eman nahi dizkiegu 12 urte luze hauetan zehar Sapuetxen parte hartu duten guztiei eta gure proiektu hau aurrera eramateko babesak eman digutenei.

Sapuetxe aurrera!

Sapuetxe Gaztetxea

Klik batean @**Aparkalekua**

Hau da hau, eredu izatea! Udaltzaingoak ere gaizki aparkatzen du, nahiz eta euren erreserbatutako lekua eduki. Zelan jarriko diete isuna herritarrei, eurek ere txarto aparkatzen badute? Ibon Lizundia Leturiaga (Matiena-Abadiño)

Sei hankako mahaia

Karmen Sampedro EA

Korrika Zaldibarren

Asteon Korrika Zaldibartik pasatu da, gauko ordu bietan. Oso momento polita izan da han batutako guztientzat. Jende asko bildu gara korrika egiteko, euskararen alde. Duda barik, kalera irtetzeko arrazoia garrantzitsua da bi urterik behin Euskal Herria zeharkatzen duen ekimena.

Korrika heldu baino lehenago afari bat antolatu dute. Berrogei bat pertsona alkartu gara afaltzen, eta afaldu eta gero kantu-kantari ibili gara. Zelako giro ona! Denok abesten, dantzatzen... Eta abestiak euskaraz, noski. Gure hizkuntzak elkartzen gaitu, guztiok helburu batekin. Abesti batek esaten duen bezala *"Ez al dakizu euskara dela euskaldun egiten gaituela?"*. Hori da, euskaldun guztiok batera euskararen alde.

Beste aldetik, laster izango dira hauteskundeak. Batzuek egin dugu apustu berri bat. Ilusio handiz hasi gara ibiltzen, beste abertzaletan euskaldun batzuekin. Etorkizunak zer eka-rriko duen ez dakigu, baina orain egin behar duguna argi daukagu. Gure herriaren alde lan egingo dugu, eta horretarako gure asmoak konpartitzen dituztenekin elkartu gara. Denon artean ondo konpontzeko, gure artean konfidantza eduki behar dugu. Hasi gara bidea egiten, eta ondo goaz, gustura. Gure herriak kanpora begiratzen Euskal Herri abertzaletan amets egiten dugu.

Denok bizi gaitzen bakean eta askatasunean, besteak errespetatuz, bakoitza bere ideia eta helburuekin.

Nire ustez, onerako aldaketa asko etorriko dira. Gogo handiz gara, lan egiteko prest. Esfortzu guztiak batu behar ditugu gure helburuak lortu ahal izateko. Animo eta aurrera!

Abestiak dio: "Ez al dakizu euskara dela euskaldun egiten gaituena?". Denok batu gara euskararen alde



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2011ko apirilaren 15a - 10. urtea - 412 zk.

Laguntzailea:



Eta honako udal guztiak:



Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazio burua:

Itziar Belar

Administrazioa:

Miren Abasolo.

Publizitatea:

Itziar Azula, Goretti Alonso eta

Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso

Esteban, Markel Onaindia, Amaia

Ugalde, Aritz Maldonado.

Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Argazkilariak: Kepa Aginako eta

Juanra de la Cruz.

KULTURA[>]ZILAR ASTEA[>] DOKUMENTALA

“Hamarkada ikuspuntu kritiko batetik aztertute elkarrizketatuek”

Zilar Astearen barruan aurkeztuko dute gaur, San Agustin kulturgunean, **Unai Iturriagak** zuzendu eta Bideografik-ek ekoitzi duen ‘Durango 80’ dokumentala

Gidoigile aritua zara aurretik. Zelako esperientzia izanda dokumentala zuzentzea?

Lehenengo aldia izan da honelako dimentsioko gauza batean jardun dudana. Lan handia izan da, bolumen handia hartu duena azkenean: hogeita bi elkarrizketa egin ditugu, hogeita hamar lagun guztira, hamabost gai jorratzen dira... Luzea izan da prozesua, edizio laneko azken aste biak astunak izan dira, baina polita izan da.

Herritarrengandik sorturiko proiektu kulturaletan jardun zutenak berbalagun

Zelan sortu zen lanerako ideia? 80ko hamarkadagaz lotuta dokumentala egiteak merezi zuela pentsatuta, eta iazko Zilar Asteko ikuskaria grabatu zuen Bideografik-eko jendeak prestutasun osoa agertu zuenez, euren gana jo genuen.

Grabazio orduetatik aukeraketa egitea gaitza izan da?

Hamabost gai dira; sakontzen hasiz gero bakoitzagaz dokumental bat egiteko lain... Guztira, 40 ordu baino gehiago geneuzkan. Editatuta, ordu bat eta hogeiminutuan utzi dugu azkenean.

Lehenengo pertsonan bizi izan zenuen zuk sasoia?

Bigarren pertsona edo... 1974an jaioetakoa naiz, eta 80ko hamarkadaren amaieran hasi nintzen bertsoetan eta kalera ateratzen. Etxeko anaia gazteena naiz, eta egia da horrek ere egiten duela garaia beste bide batetik etxera sartzea; gauzak heltzen zaizkizu, nahiz eta zuk lehenengo pertsona bizi ez.

Durango oso ezagunak agertzen dira dokumentalean.

Bai, Jose Julian Bakedano ordezkaria ezina da, esaterako. Mikeldi aldizkariari buruz berbetan Edu Barinaga agertzen da... Azpimarratu gura nuke, aukeraketa guztiak direla subjektiboak, eta inoiz besteren batek hamarkada honi helduko balio, beste pertsona

batzuei galdetu eta beste istorio batzuk aterako lituzkeela.

Aurreiritziak eta mitoak apurtzen dituzte elkarrizketatuek?

Elkarrizketatu guztiek gura izan dute ihes egin mitifikaziotik; hori horrela da, bai. Agertzen diren gai guztietan, errebisio kritiko bat egiten dute elkarrizketatuek. Esaterako, urte askoan tabu izandako drogen eraginaren gainean jendeak daukan berba egiteko modua oso interesgarria da. Benetako triskantza eragin zuen heroinak inguruetan legez Durangon, eta eragin zuzena eduki zuen herri mugimenduetan. Elkarrizketatuetako batek esaten duen moduan: “Diktadura batetik gentozen, askatasuna agertu zen bat-batean, eta askorentzat ez zen erraza askatasuna zelan kudeatu asmatzen”.

Hamarkadak aurrera egin ahal iztali zen leherketa hura?

Sorturiko hainbat proiektu desagertu ziren hamarkada amaierarako, eta azkenetan zeuden beste hainbat. Modu espontaneoan, herritarrengandik, gogoaz zegoelako, ezer ez zegoelako... sortu ziren

proiektu asko. Egoera historiko oso berezia zen. Gauza askoren amaiera, herritarrek sortutakoaren esparrua instituzioak hartzen hastean etorri zen. Ia elkarrizketa guztietan aipatu didate hori.

Gogoetarako gai asko ematen ditu dokumentalak.

Dokumentalean ez da moralik edo lekziorik zabaltzen, batetik, nire asmoa ez zelako hori, baina, batez ere, elkarrizketatuen jarreragatik. Nik uste dokumentalean badaudela antolakuntza-desantolakuntza, kontrola-deskontrola, instituzioa-herri mugimendu, drogak, eta abar lakoei buruzko gogoetarako gaiak... Bakoitzak ikusi eta baloratu beharrekoak.

Zer ikuslerentzat izan daiteke interesgarria lana?

Bizi izan zutenentzat, eta euren guraso zein seme-alabentzat ere oso aberasgarria izan daitekeela uste dut: diru gutxigaz eta inplikazioagaz gauza handiak egin daitezkeen adibide interesgarriak daude, esaterako. ■ I.Esteban.

> Bideoa: www.anboto.org



Bideografik ekoiztetxeak landu du proiektuaren alde teknikoa

“Sarrionandiaren lanari buruzko iazko Zilar Asteko ikuskaria grabatu genuen, eta haren editatze lanetan genbiltzala egin ziguten honetan parte hartzeko proposa-


mena”, azaldu digu Bideografik ekoiztetxeko Dabid Maeztuk. *Durango 80* dokumentala osatzeko, lan-talde teknikoa osatu du Bideografik-ek; grabazioak

eta post-produkzioa burutu dituzte. Kameralari lanetan Dabid Maeztuk, Eukeni Arriorruak eta Bittor Zabalak jardun dute. Bi kameragaz egin dute gra-

bazioa: batez irudi orokorra eta besteagaz plano laburrak hartu dituzte. Irudia eta soinua, bakoitza bere aldetik landu dute: Audion enpresako lagun bik hartu dute soinuen ardura.

“Elkarrizketetarako set finkoa prestatu genuen”, dio Maeztuk, “eta hiru astean egin genituen grabazioak”. Elkarrizketatu bakoitzagaz ordu erdiko grabazioa egin zuten, batez beste, eta Bideografik-eko Xabier Zabala lankideak beste hiru astean burutu du, ondoren, post-produkzioa lana.

Durango 80 dokumentalean parte hartzea oso aberasgarria izan da lan-taldearentzat, Bideografik-ekoek diotenez: “oso gazteak ginen 80ko hamarkadan, eta dokumentalean agertzen diren hainbat kontu ez genituen eza gutzen: gazte asanbladak ordu-rako lanean ziharduena, Herria elkarteak egiten zuen lana... Uste dut dokumentala oso interesgarria egingo zaiela durangarrei”.



ANTZERKIA > ESTREINALDIA

Apirilaren 17an Durango-ko San Agustin kulturgunean eskainiko du Hika Teatroa talde donostiarrak estreinakoz *Ilargiaren bi aldeak* obra. “Antzerkia, dantza eta zirkua uztartzen dituen familia osoari zuzendurikolana” da, egileek aurkezpenerrian azaltzen dutenez.

Gurasoek zein adin guztietako umeek gozatzeko moduko obra izan arren, sortzaileen berbetan, zazpi urtetik gorako umeek aterako diote zukurik gehien *Ilargiaren bi aldeak* obrari, eurendako apropos sorturiko baliabideak baitarabiltzate: eurengan pentsatuz garatu dute obraren erritmoa eta hautatu dute musika.

Gerretara olatuz
dibertitzea edo gerra
ahazteko jolastea

“Gerretara olatuz dibertitzen” den gaztetxo bat eta “gerra ahaztu ahal izateko jolas egiten duena” topatuko ditugu, orain hilabete gutxi Gorakadaren *Ogro txikia* antzezlanaren ere zuzendu duen Agurtzane Intxaurrearen dramaturgia eta zuzendaritzagaz ekoitzi duten *Ilargiaren bi aldeak* obra berri honetan.

Ikuslego helduarentzat zein umeentzat ekoizten dituzten lanen edukia zein forma asko zaintzen du Hika Teatroak. Talde honek aurretik jorraturiko bidearen adibide dira, esaterako, 2009an estre-

‘Ilargiaren bi aldeak’, zazpi urtetik gorako umeei begira

Domekan 18:00etan hasita estreinatuko du Hika Teatroak obra berria San Agustinen

natu zuten *Aitarekin Bidaian* eta 2002an aurkeztu ondoren hainbat antzerki-sari jaso dituen *Ai, Ama!* antzezlanak.

Orain urte bi helduentzako sortu zuten *Aitarekin bidaian* hartan edo *Ai, Ama!* antzezlanean legez, Arantxa Iturbe kazetari eta idazleak eta Agurtzane Intxaurregak elkarlanean sorturikoa da *Ilargiaren bi aldeak* honen testua.

Miren Gaztañaga eta Amaia Pascual aktore-dantzariak eta Maider Yabar aktore-akrobata arituko dira domekan, Durango San Agustin kulturguneko oholtzatik, eta Uxue Alberdi idazlearen kolaborazio berezia ere izan dute estreinatzearen dute obra honetan.

Aktore dantzari eta
akrobatak arituko dira
San Agustingo oholtzatik

Elkarrekin jolastea gaitz egiten zaien ume bi dira obraren protagonista, eta “irudi, erritmo eta egoera inguratzailerak” baliatzen dituzte sortzaileek, “gerretara jolas-tuz benetan dibertitzen zara?”, galdetzeko ikus-entzuleei. ■ I.E.



GEURE DURANGALDEA



Jon Ander Urkiaga
Ikaslea

Ez dizuet nik esango

Gaur ez duzue metaforarik irakurriko lerrootan. Ezta sasi-poesia egiteko ahalegin handiustekorik ere.

Dena argi eta garbi esango dizuet gaur. Edo, beharbada ez dizuet esango. Eta, txarrena da, ez dakidala esan gurako nizuekeen ere.

Gaur ez dut ezintasunari buruz hitz egingo.

Gaur ez dut gutxiengo linguistikoari buruz hitz egingo.

Ez dut aipatuko euskara, ezta euskalduna ere.

Herria hitza sobera dago gaur, eta baita berba horri jarri dakioken edozein adjektibo ere.

Zertarako tinta gastatu ofizialtasunari buruz hitz egiten?

Amaitu dira eskaerak eta aldarrikapenak, pankartak eta esloganak.

Lerro hauetan ez dut gure hizkuntzaren ikasketaren doakotasunaren aldeko apologiarik egingo.

Ni neu behintzat ez noa ordenantzarik eskatzera, eta are gutxiago agindurik ematera.

Ez dut ezer exijitu nahi. Ez ei dut zilegitasunik.

Eta, egunotan besterik entzuten ez bada ere, nik neuk ez diot Korrikari inolako publizitate merkerik egingo.

Halan da ze, ez dizuet nik esango etzi Donostiara arineketan joan behar duzenik. Nagusitxoak gara dagoeneko, ezta? Aspaldi ikasi zenuten gogoak eskatzen dizuen egiten.

Baina, azkenean, Donostiara joatea erabakitzen baduzue, bertan elkar ikusiko dugu, ezintasunak ahaztuta, gutxiengo izatetik gehiengo izatera igarotzeko asmoz, euskara eta euskaldunok bat eginik, euskal herri baten alde, ofizialtasunaren bidean, garenaren aldeko aldarria eginez, euskara doan ikasketeko eskubidea izatearen alde, euskara ordenantzak exijituz; eta hori dena zilegitasun osoz.

Tipi-tapa, tipi-tapa...

ERAKUSKETA > PINTURA

Mozambiqueko irudietatik eskualdeko artistek osatutako artelanak Errotan

Hogei euroan ipiniko dituzte Errota kultur etxeko ‘Mundu justuago baterako artea’ izeneko erakusketako lanak salgai: Mozambiquerako bideratuko dute ekimenagaz lortutako dirua



Apirilaren 20a arte izango da ikusgai Durangaldeko artistek Mozambiqueko argazkietan oinarrituta sorturiko artelan erakusketa Traña-Matienako Errota kultur etxean.

Hamabost urtean herrialde hartan boluntario lana burutu duen Idurre Ormaetxea durangarrak bultzatuta, Durangaldeko Artisten Elkarteko 50 kidek hartu dute parte *Mundu justuago baterako artea* izeneko erakusketan.

Inharrime barrutian

Antolatzaileek azaldu dutenez, 20 euroan ipiniko dituzte erakusketako obrak salgai, eta batzen duten dirua Ormaetxeak Mozambiquerako garatzen diharduen proiektura bideratuko dute. Mozambiqueko Inharrime izeneko barrutian jardun du bi urtez Ormaetxeak boluntario lanetan, eta bertakoak dira erakusketako artelanen abiapuntu diren pertsonak eta paisaiak ere.

Astelehenean zabaldu zuten 62 artelanen bildumaren erakusketa, eta apirilaren 20a arte Traña-Matienako Errota kultur etxean izango dira ikusgai. ■ I.E.

gremioen koordinazioa

urutiaga

Bainugelarako komun ontziak eta berogailuak
azulejo, zoladura, teila, zeramika, hormigo
erakusketa, salmenta eta ipintzea

Solaguren kalea, 3 - tel./ faxa 94 681 44 74 - MATIENA (Abadiño)

katerin
ardoak
iñaki
uribe

saltsan

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427 saltsan.com

Betikoak
flexografia

ofizinarako zigiluak
fotolitoak

Bixente Kapanaga, 9 - 48215 IURRETA
Tel.: 94 620 22 41



TRAÑA-MATIENAKO JAI EGTARAUA

Apirilak 25, astelehena

- 11:30etan, Kadete mailako San Prudentzio Saria txirrindulari lasterketa.

Apirilak 27, eguaztena, Donien Atxa Eguna

- 19:00etan, Koadrila guztien bilera Trañaiko zubian.
- 20:00etan, Donien Atxa altxatzea. Zo Zongo txarangak alaituko du giroa. Iluntze dantza taldearen saioa eta urteko lagun ospetsuena saritzeko ekitaldia.

Apirilak 28, eguna San Prudentzio Eguna

- 11:00etan, Meza nagusia.
- 11:30etan, Umeen kalejira Goloka taldeagaz.
- 11:30etan, Umeendako jolasgunea Traña plazan. Euria bada, frontoian.
- 14:00etan, Jubilatuen bazkaria.
- 15:30etan, Umeendako jolasgunea Traña plazan. Euria bada, frontoian.
- 16:30etan, Margo txapelketa, umeentzako, Traña plazan.
- 17:00etan, 'Bob Esponja' graffitia, Traña plazan.
- 18:00etan, Gramola taldeagaz umeentzako jaialdia, Traña plazan.

Apirilak 29, barikua

- 17:00etan, Betiko jokoak, Traña plazan.
- 19:30etan, poteoa, Zaparrada txarangak alaituta.
- 21:00etan, San Prudentzio Texas Holdem Poker Txapelketa frontoian.
- 22:00etan, Hienas rellenas antzezlan, Errota kultur etxean (gonbitea beharko da sartzeko, goitik jota pertsona birentzat, eta eskura egongo dira

apirilaren 18tik aurrera Errota kultur etxean bertan).

- 23:00etan, Alto Standing taldeagaz jaialdia Trañabarren etorbidean.
- 23:00etan, Kontzertuak Traña plazan: Pixontxis, eta Gozategi.

Apirilak 30, zapatua

- 10:30etan, Txistularien kalejira.
- 11:00etan, Areto-futbol neurketak eskoletan: Traña-Matiena H.E.A.-Zaldibar 4.
- 11:00etan, Egun guztian zehar, graffiti erakustaldia, Trañabarren etorbidean.
- 12:00etan, Areto-futbol neurketak eskoletan: Traña-Matiena B-Zaldibar B.
- 12:00etan, Paella txapelketa merkatu plazan.
- 13:00etan, Iluntze dantza taldearen saioa.
- 15:30etan, La Estudiantina Trueba tunagaz kalejira.
- 16:00etan, 'Ugasio' txapelketa merkatu plazan.
- 16:30etan, Marsel magoa merkatu plazan.
- 18:00etan, Tortilla Txapelketa merkatu plazan.
- 22:30etan, Su artifizialak.
- 22:30etan, Bertsolariak frontoian: Sustrai Colina, Gregorio Larrañaga 'Mañukorta', Jone Uria eta Unai Iturriaga. Gai-jartzaile: Maite Berriozabal.
- 23:00etan, Jaialdia Trañabarren etorbidean: Hollywood.
- 00:30etan, Traña-Matiena Electronic Open Air musika jaialdia, Traña plazan: Ruben Costas, Iker Undersound, Txus eta Aitor Pintado.

Maiatzak 1, domeka

- 10:00etan, Txistularien kalejira. Goizean zehar, txahala erreko du Geu Be elkarteak Traña plazan.

- 10:30etan, Nekazari, artisau eta abeltzainen azoka Traña plazan.
- 12:00etan, Kontzertua elizan: Jaizale Durangaldeko txistularien elkarte eta Done Zezili abesbatza.
- 12:00etan, Umeendako ipuin lehiaketa, Traña plazan.
- 13:00etan, Herri-kirolak Traña plazan.
- 17:00etan, Play back txapelketa, Traña plazan.

Maiatzak 6, barikua

- 19:30etan, Koreografia jaialdia Irati taldearen eskutik, Errota kultur etxean (goitik jota pertsona birentzat, gonbitea beharko da sartzeko, eta eskura egongo dira maiatzaren 2tik aurrera Errota kultur etxean).
- 21:00etan, San Prudentzio Frontenis Txapelketaren finala frontoian.
- 23:00etan, Jaialdia Traña plazan: Hesian eta Trikizio.

Maiatzak 7, zapatua. Mozorro Eguna

- 10:30etan, Quad-ak umeentzat, Galizia plazan. Abadiño Enduquad taldeak antolatuta.
- 11:00etan, Areto-futbol neurketak eskoletan: Traña-Matiena H.E.B.-Zabalarra.
- 11:00etan, Saskibaloia partida, frontoian: Traña-Matiena H.E.-Zelaieta H.E.
- 11:00etan, Areto-futbol neurketak eskoletan: Traña-Matiena H.E.D.-Zaldibar A.
- 16:00etan, Umeentzako jolasgunea, Galizia plazan.
- 16:30etan, I. Hiri Milia San Prudentzio 2011.
- 17:00etan, San Prudentzio Pilota Txapelketaren finala.
- 22:30etan, Su artifizialak.
- 23:00etan, Disko dantza, Galizia plazan.

- 23:00etan, Rock jaialdia Traña plazan: Hechizo, Pedrá eta A Pelo y Tú.
- 00:00etan, Mozorro lehiaketako sari banaketa, Galizia plazan.

Maiatzak 8, domeka

- 12:00etan, Umeentzako jolasak Traña plazan (euria bada, frontoian).
- 12:30etan, Perretxiko pintxoak eta salda Trañabarren etorbidean, Geredixa mikologi elkarteak eratuta.
- 16:00etan, Umeentzako jolasak Traña plazan (euria bada, frontoian).
- 17:00etan, Zirika Zirkusen saioa, Trañabarren etorbidean.
- 18:00etan, Xake erakustaldia, Pino plazan.
- 20:00etan, Donien Atxa botako dute, jaiak agurtuz. Uskelabe txarangak girotuko du ekitaldia.

Erakusketa

*Apirilaren 26tik maiatzaren 7ra bitartean, kartel lehiaketara aurkeztutako lanak ikusgai egongo dira Errota kultur etxean.

ondo
pasa!



Kale izkinaren bueltan daude aurtengo Sanprudentzioak. Apirilaren 25ean hartuko ditu jaiak Traña-Matienako kaleak, eta maiatzaren 8a arte iraungo du ospakizunaren freskotasunak. Ez da musika, kalejira, ikuskizun eta jan-edanik faltako.

Hilaren 27an, Traña-ko zubian elkartuko dira lagun koadrilak, 19:00etan, eta ondoren, 20:00ak bueltan, Donien Atxa altxako dute. Txaranga doinuekin iragarriko dute San Prudentzio Egunaren etorrera; Iluntze dantza taldeak ere eskainiko du emanaldia. Apirilaren 28a da jaietako egun nagusia, eta aurtun umeentzat apartekoa izango da. Goizetik iluntzera arte kalejira, jolasak, graffiti tailerra eta musika jaialdia prestatu dituzte antolatzaileek.

Jai Batzordea bigarrenaz

Iaz berriro ekin zioten auzotarrek jaiak antolatzeari, eta aurtun ere mantenduko dute apustua. Orotariko eskaintza izan arren, indar berezia eman gura izan diote euskal giroko musikari. Bertso saio arrakastatsuak beste edizio bat izango du, hilaren 30ean, Iturriaga, Colina, Mañukorta eta Uriagaz.

Maiatzaren 7an Mozorro Eguna ospatuko dute egun osoan zehar; gaueko 24:00etan egingo dute sari banaketa ekitaldia. Bestalde, Apirilaren 26tik maiatzaren 7ra, kartel lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa egongo da ikusgai Errota kultur etxean.

Hilaren 25etik aurrera jaia nagusituko da

Apirilaren 25etik aurrera, ia aste biko ospakizuna izango da Traña-Matienan



J. de la Cruz

Argazki muntaia jai iragarle

Abadiñar bi saritu dituzte aurtengo kartel lehiaketan. Lehen saria 38 urteko Ignacio Condek irabazi du, Traña-Matienako bost argazki erakusten dituen muntaia, aldizkari orrialde bat bailitzan.

Ez da hasiberria Conde, aurtengo San Blas azokako argazki-lehiaketa ere irabazi du-eta. Lehiakideak "zorteko" dagoela adierazi du; argazkizalea da, eta "oso pozik" ei dago "herriak eskaintzen dituen aukerekin: mendiak, paisaiak...". "Mendian berehala topatzen duzu intereseko zerbait", azpimarratu du Condek; 300 euro jaso ditu.

Traña-Matienako bost argazki erakusten dituen Ignacio Conderen muntaiak lortu du saria

Herriko parte-hartzaile onenarentzakoa, berriz, Joseba Gonzalezek jaso du. Hainbat bider eskuratu du Gonzalezek lehenengo edo bigarren postua antzeko lehiaketetan; 200 euro poltsikoratu ditu aurtengo sariketan.

EROSKI Jai zoriontsuak opa dizkizuegu abadiñar guztioi!

EROSKI ABADIÑO • zurekin!

ZainduZ

FISIOTERAPIA • OSTEOPATIA

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea, behe-eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO
Tel.: 94 465 71 32
Mug.: 686 906 374

VIA LIDER

neumáticos ETXEBARRIA

MICHELIN BFGoodrich BRIDGESTONE Firestone

uribitarte industr. 6 48220 MATIENA-ABADIÑO (BIZKAIA)
(Hiper Eroskiaren ondoan)
Tel.: 94 623 25 20 - FAX: 94 620 36 22

Traña-Matienako jaiak hasiera ematen dien ekitaldia izateaz gainera, Sanprudentzioetan jenderik gehien batzen duen unea ere bada txopoa-ren jasotzea. Tradizio horri eusteko urtero hainbat gaztek hartzen dute txopoa bota, prestatu, bertara eroan eta altxatzeko ardura. Eurak barik ez litzateke posible izango. Zorionez, orain dabilzanak "gogotsu" daude, eta erreleboa ere badator, apurka-apurka, David Nuñez ekimenean parte hartzen duen gaztearen esanetan: "Ni, nire lagun taldea eta beste hainbat txopoa jasotzen hasi ginenetik 13 bat urte joan dira. Denbora dezente da, baina gustura gabilta, gogotsu. Jende berria erakartzea ez da erraza, baina urtero agertzen da gazte berriren bat, eta hori pozgarria da".

Urte hauetan guztietan hamaika bizipen partekatu dituzte egun horren harira. Nuñezek gogoan du zelan, orain urte batzuk, txopoa erori egin zen eta lagun baten hanka harrapatu zuen; kasualitatez, aste bi lehenago, txopoa

"Txopoa jasotzean euria da kontrolatu ezin den aldagai bakarra; bestela, dena ondo prestatuta izaten dugu egun horretarako"

"Orain txopoa jasotzen dugunok gogotsu gabilta tradizioari eusten, baina apurka gazteak animatzea pozgarria da guretzat"

moztu eta prestatu ondoren toki segurura mugitzen zebiltzala, kide bati eskuetatik labandu eta hari ere hankara jausi zitzaion. Txopoak, antza, bere mendeku txikia hartu gura izan zuen bere lasaitasunetik burrundararen erdira tokialdatu gura zutenekin.

Aurten ere, apirilaren 27an, biribilgunearen bueltan eta etxeetako balkoietan batutako ikusleek ohiko komentarioak egingo dituzte txopoaren zain daudela; erraz igoko duten, aurreko urtekoa baino garaia izango den... Txopoa ekarri arteko minutuetan interesari eusteko balio dute berbaldi horiek guztiek, baina arduradunek ondo lotuta izaten dituzte gorabehera guztiak: "Kontrolatu ezin daitekeen aldagai bakarra euria da. Euria ari badu, gauzak zaildu egiten dira, baina, bestela, dena

"Gazteak txopoa jasotzera animatzen doaz apurka-apurka"

Txopoa jasotzen urtero aurpegi berak ikusten ditugu; hala ere, urtero agertzen da boluntario berriren bat



J. de la Cruz

ondo prestatuta egoten da. Gainera, guri ez digu entrenamendu berezirik eskatzen; bakoitzak badaki bere funtzioa zein den, urterokoa delako, beraz alde horretatik ere gaitza da ustekaberik egotea". Hala ere, txopoa jaso aurretik, normala den moduan, tentsio puntua izaten dute, begi askoren jomugan daudelako.

"Jaietan sasoi batean baino jende gutxiago dabilela nabari dugu; hala ere, jai-girorik eta festarako gogorik ez da aurten ere faltako"

Urduritasun horrek txopoa jaso ondorengo pozean du kontrapuntua.

"Jende gutxiago dabil jaietan"

Jaiak buruz orokorrean galdetuta, Nuñezek orain urte batzuk baino "jende gutxiago" dabilela deritzo. Hainbat urtean jaien antolaketa udalaren esku egon ondoren, iaz jai batzorde batek hartu zuen berriro testigua. Hori albiste ona den arren, sasoi bateko mugimenduagaz ezin daitekeela alderatu dio Nuñezek. Jaietara hurreratzen den jende emarian ere jaitiera somatu du azken aldian. Edozelan ere, urtea joan eta urtea etorri gertatzen den moduan, jai giroa eta festarako gogoia sobera egongo ei dira aurtengo Sanprudentzioetan ere.

anboto

Durangaldeko usaina ezin deusugu transmititu, baina Durangaldea entzun, ukitu eta ikusteko...

anboto komunikabideak

HARATEGI PINILLA

ARTISAU ERARA ESPEZIALIZATUA

BASERRIKO OKELA

TRAÑABARREN, 29
Tel.: 94 681 51 27
MATIENA - ABADINO

Garage Miguel

• GARBIKETA
• TAPIZERIAK
• MEKANIKA
• GURPILAK

Arzubia, 10 A
1 Pabiloia
48220 Matiena

Tel.: 94 681 91 61
Fax: 94 621 82 64

MOTOS TABIRA

salmenta, konponketa eta boutique

kontseionario ofiziala
BENELL • SCORPA • AJP
KERWAY • PIAGGIO

Pol. Arzubia, 10-b pabiloia 48220 MATIENA-Abadino

Tel.: 94 681 4068
www.motostabira.com

GISASOLA PENTSUAK SL

Pentsuak oro har - Haziak - Etxeko animaliak - Opariak - Txoriak
Loreak - Arrain Tropikalak - Lorezaintzako produktuak - Indioitar, oilo eta oilaskoaren salmenta - Nekazaritzako burdindegiko produktuak
Txoriak - Dordokak - Kaiolak - Osagarriak - ...

Trañabarren 27 • 94 681 66 87 • 48220 MATIENA-Abadino

Zuzeneko musika eskaintza aberatsa

Pixontxis elorriarrek eta Gozategi gipuzkoarrek joko dute, esaterako, apirilaren 29an, plazan

Traña plazan, San Prudentzio jaien lehenengo barikuan, iaz kaleratutako *Bizi-bizirik* diskoko kanta berriak eta taldearen abesti ezagunenak eskainiko ditu Gozategik, eta aldarrikapenez eta umorez beteriko rock eta punk doinuak Elorrioko Pixontxis laukoteak.

Extremoduro, Héroes del Silencio eta Platero y Tú taldeen bertsioak egiten dituzten hiru taldek joko dute maiatzaren 7an

Askotariko musika doinuak izango dira entzungai maiatzaren 8ra arteko Traña-Matienako San Prudentzio jaietan; auzoko giroa alaituko duten txarangek egunez, eta askotariko musika estilotako hainbat kontzertu izango dira gauetan.

Apirilaren 30erako, esaterako, Traña-Matienako Electronic Open Air musika jaialdia antolatu dute; Ruben Costas, Iker Undersound, Txus eta Aitor Pintado jartzailak jardungo dute, 24:30ean hasiko den Traña plazako emanaldian.

Maiatzaren lehenengo eguerdia girtzen, Jaizale Durangaldeko txistuzale elkar-teak eta Done Zezili abesbatza abadiñarrak jardungo dute, 12:00etan elizan.

Jaietako bigarren asteburuaren atarian, maiatzaren 6an, Hesian eta Trixizio taldeen kontzertuak daude jaietako programan iragarrita; eta Heroes del Silencio, Extremoduro, eta Platero y Tú taldeen bertsioak egiten dituzten Hechizo, Pedrá eta A pelo y Tú taldeenak maiatzaren 7an.

Musikaz gainera, beste hainbat kultur adierazpen ere jasotzen ditu egitarauak: *Hienas rellenas* antzezlanak, graffiti erakustaldia, umeen ipuin lehiaketa, eta dantza emanaldiak ere izango dira, besteak beste, Traña-Matienako jaietan.



Bodegas Launa
Araba Errioxa

www.bodegaslauna.com
info@bodegaslauna.com
Tel.: 94 682 41 08

Cafetería · Oxford

Tel.: 94 681 88 84
Trañabarren, 7 • MATIENA-ABADIÑO (Bizkaia)

DOHERTY'S
berria

tel.: 946203762
san prudencio 6 matiena(abadiño)

Atzerriko garagardotan espezialistak Pintxoak
Goizeko 7:30etan zabaltzen dugu

Armando - Mary

Trañabarren, 9
48220 Matiena-ABADIÑO
Telf.: 946817368

HOTEL San Blas

Tel.: 94 681 42 00 - 94 681 45 16
Faxa: 94 681 42 00
Bilbo-Donosti errepidea 32. km
48220 MATIENA - ABADIÑO

R. SAMUR
COMPRESORES
SALMENTA ETA KONPONKETAK

Tel.: 94 681 89 67 Tel./Faxa: 94 620 09 42

Traña Industriagunea -D, 13 pabilioia (Abadiño) E-mail: REPSAMUR@terra.es
www.reparaciones-samur.com

Urutiaga
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AXULFI, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA, HORMIGOI,
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENAK

LA MAGDALENA
BASERRI TRESNETARAKO TRANSMISIOAK

ondo pasatu San Prudentzioetan



PROMOZIO BERRIA 46 ETXEBIZITZA

MATIENA

GARAJEAK ETA TRASTELEKUAK
3 LOGELAKO ETXEBIZITZAK
92 eta 97 m² erabilgarri

INMOBILIARIA
SAN FAUSTO, S.A.

Tel.: 630 993 167
94 457 17 00
www.inmorehala.com



**Prebentzio
Sozietatea
FREMAP**

AURREIKUSTEZINA AURREIKUSTEN DUGU

Murueta kalea, 1
U.B.G Building eraikina,
1. solairua, 2-3 bulegoa
48220 Abadiño
Tel.: 94 681 27 87 / Fax: 94 681 27 94

www.prevencionfremap.es

[GOGOAN ZAITUGU]

Zure enpresaren osasuna zaintzeko behar duzun guztia eskaintzen dizugu:



Gestioa eta aholkularitza: Dena kontrolpean

- OSHAS 18.000
- Gestio auditoritza
- Enpresa jardueren koordinazioa



Segurtasuna lanean: Lanpostu bakoitza toki seguru bihurtzen dugu

- Lan ekipoaren egokitzapena RD 1215/97
- Segurtasun eta osasun plana eta koordinazioa, eraikuntza obretan
- Segurtasun aholkularitza merkantzia arriskutsuen garraiorako
- Autobabesa eta larrialdi planak
- Baliabide prebentiboak
- Atmosfera leherkorak
- Lana altueratan
- Lan espazio baztertuetako segurtasuna
- Mugikortasun planak
- Neurketa elektrikoak



Higiene industrial: Laneko giro onena

- Agente fisiko, kimiko eta biologikoen neurketa eta ebaluazioa
- Material-zuntzen identifikazioa
- Barruko giroaren kalitatearen ebaluazioa
- Kontsumorako uraren analisia



Ergonomia eta psikosoziala aplikatua: Lan-tokia pertsonari egokitzen diogu

- Mugimendu errepikakorrak
- Postura derrigortuak
- Pisuen edo kargen eskuzko erabilera
- Eginkizun eta lanpostuen diseinua
- Faktore psikosozialen ebaluazioa
- Laneko jazarpen eta biolentzien protokoloen elaborazioa
- Lidergo prebentiboaren formazio espezifikoak



Lan medikuntza: Osasunaren gestio integrala

- Osasun kolektiboaren zainketa
- Osasun azterketak
- Osasuna sustatzeko kanpainak



Formazioa: Jakin beharrekoa

- Ikastaro programatuak
- Ikastaro espezifikoak enpresan
- On-line ikastaroak
- REA akreditazio ikastaroak
- Formaziorako bonifikazioen gestioak



Industria Araudiak: Ikerketa eta garapena, lan kalitatea hobetzeko

- Segurtasun araudia suteen kontra
- Atex dokumentazioa
- Segurtasuna lan espazio baztertuetan
- Ikuskapen arautuetarako aholkularitza (Presio tresna jasotzaileak, tentsio altu eta bajuak...)



Kirolaz gozatzeko ere badago aukera aurten Matienan

San Prudentzioko txirrindularitza proba berreskuratu egin dute; iaz ez zen korritu

Parrandaz gainera, kirola egiteko aukera ere egongo da Matienako Sanprudentzioetan. Iazko jaietan ez jokatu eta gero, 2011ko jai hauetarako San Prudentzio txirrindularitza proba berreskuratuko dute; lasterketa kadete mailako txirrindularientzat izango da, apirilaren 25ean. Apirilaren 30ean, berriz, areto futbol partiduak jokatu dituzte Matienako eskoletan. Jaietako lehenengo asteburuari amaiera emateko, herri-kirol erakustaldia egingo dute maiatzaren 1ean, 13:00tik aurrera.

I. San Prudentzio Hiri Milia

Aurtengo festetako nobedade nagusia Bidezabal atletismo taldeak antolatuko duen I. San Prudentzio Hiri

Milia izango da; 16:30ean abiatuko da maiatzaren 7an ospatuko den proba hori. Mozorro Eguna ere izango da, eta egun horretarako hainbat kirol ekimen daude antolaturik. Goizean, 10:30ean, umeentzako Quadak egongo dira; 11:00etan, ostera, areto futbol eta saskibalo partiduak jokatu dituzte. 17:00tik aurrera, berriz, San Prudentzio txapelketako finalak jokatu dituzte. Jaietako amaiera emateko, maiatzaren 8an xake erakustaldia eskainiko dute.

Jaietako nobedade nagusia Bidezabalek antolatuko duen I. San Prudentzio Hiri Milia izango da

San Prudentzio egunez, umeek, parranda

Kalejira, txapelketa eta musika jaialdia antolatu dituzte hilaren 28rako

Umeek ia egunero jaiatzeko aukera edukiko badute ere, San Prudentzio Eguna izango da egun beteena eurentzat. Goizeko 11:30ean, Goloka taldeak animatutako kalejira egingo dute Traña-Matienan zehar, eta arratsaldean margo txapelketa, Bob esponjaren graffitia eta musika jaialdia edukiko dituzte Traña plazan; 18:00etan hasiko da jaialdia eta

gramola baten inguruan musika eta jolaserako tarte egongo da.

Jolas parkea ere ipiniko dute Traña plazan egun horretan. Biharamunean, betiko jokoak ikasi eta jolasteko aukera edukiko dute umeek, Traña plazan, 17:00etan. Maiatzaren 1ean, domeka eguerdian, umeentzako ipuin lehiaketa izango da Traña plazan.

Jaietako bigarren asteburuan ere egongo dira ekitaldiak etxeko txikientzako. Zapatuan, Mozorro Egunean, quad-ak ipiniko dituzte Galizia plazan goizez, eta eguerdi aldera eta arratsaldean jolas parke bihurtuko da plaza hori. Domekan Traña plazan izango da jolas parkea, eta arratsaldean Zirika Zirkus konpainiak ikuskizuna eskainiko du Trañabarren etorbidean.

Musika ipintzeko gramolaren inguruko jaialdian parte hartu ahalko dute umeek



BODEGUILLA
TRAÑA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85



MUEBLES DE COCINA Y HOGAR
ARRIANDI
SUKALDE ETA ETXEO ALTZARIAK
Santos sukaldeen banatzailea
Tel.: 94 620 26 56 Abadiño Tel.: 94 625 73 18 Gernika

Juan Ramon Azkonizaga
Ortuzar auzoa, 1 - IZURTZA Biltegia: 94 681 06 52
Banatzailea:

ESTANKO ALBERDI
Zubiarte, 7 • Tel.: 94 681 40 33 • MATIENA



Z E L E T A B E
Auzoa Promociones S.A.



1, 2 eta 3 gelako etxebizitzak Kalitaterik oneneko materialak

- Etxebizitza guztiek honakoak dauzkate:
 - Sukalde modernoak behar den guztiarekin.
 - Haritzeko tarima eta barruko ateak. Ateen pieza metalikoak kromatuta.
 - Horma-armairuak. Barrualdea hornituta.

Erosketa aukeradun alokairua



Iturritxo, 7 behea eskuma • 48220 Abadiño
Tel./Fax: 94 466 89 56

www.zeletabe.com
zeletabe@zeletabe.com

ALMACENES ARRASATE

TIEN 21



Intxaurrondo, 12 behea
Tel.: 94 681 34 85
48200 DURANGO

PLAN RENOVE

Arrasate-Mondragon
Tel.: 943 77 13 52 - 77 00 34



 **2** UNITS
1000
b/min
6 kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA ALF 1106
265
-105 Plan renove **aspes**
160 €

 **2** UNITS
1000
b/min
6 kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA WAE20010EE
345
-105 Plan renove **BOSCH**
240 €

 **2** UNITS
1200
b/min
6 kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA WM12E221EE
375
-105 Plan renove **SIEMENS**
270 €

 **2** UNITS
1200
b/min
7 kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA WAQ2447PEE
450
-145 Plan renove **BOSCH**
305 €

 **2** UNITS
1000
b/min
8 kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA WAQ20361EE
425
-145 Plan renove **BOSCH**
280 €

 **2** UNITS
1200
b/min
8 kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA F-2812
410
-105 Plan renove **FAGOR**
305 €

 **2** UNITS
1400
b/min
8 kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA L-74950-A
545
-105 Plan renove **AEG**
440 €

 **2** UNITS
7 kg
B Sailkapen energetikoa
LEHORGAILUA T-56840-L
435€ **AEG**

 **2** UNITS
7 kg
B Sailkapen energetikoa
LEHORGAILUA WTE8631 PEE
475 € **BOSCH**

 **2** UNITS
GARBIGAILUA ROOMBA 531
370 € **iRobot**

 **2** UNITS
A Sailkapen energetikoa
LABE PIROLITIKOA HB-73AR521
899
-190 Plan renove **SIEMENS**
709 €

 **2** UNITS
A Sailkapen energetikoa
INDUKZIOZKO PLAKA HK-633220
950
-190 Plan renove **AEG**
760 €

 **2** UNITS
1650
X
550
X
600
A+ Sailkapen energetikoa
HOZKAILUA WTE 2511 W
295
-105 Plan renove **Whirlpool**
190 €

 **2** UNITS
1850
X
600
X
600
NO FROST
A+ Sailkapen energetikoa
HOZKAILUA ROMAN F63
485
-105 Plan renove **edesa**
380 €

 **2** UNITS
2000
X
600
X
600
NO FROST
A+ Sailkapen energetikoa
HOZKAILUA KGN 39A77
660
-105 Plan renove **BOSCH**
555 €

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. MCCko kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.

 **ETXERAKO ZERBITZUA. ZAHARRA ERAMANGO DA**
 **MERKAGO TOPATUZ GERO DAGOEN ALDEA BUELATUKO DA**
 **GUSTURA GERATU EZEAN DIRUA BUELATUKO DIZUGU**
 **+dendak-eko "DURANGO" TXARTELA ERABILGARRI**

AURKEZPENA > PASIÑO

XVIII. Durangoko Pasiñoaren aurkezpen ekitaldia Kurutziagan

Martitzenean, Kurutziaga hotelean, egin zuten aurtengo Pasiñoaren aurkezpena: ehun antzezlek hartuko dute aurten parte apirilaren 20, 21 eta 22ko antzezpenetan



O hitura dutenez, Durangoko Kurutziaga Hotelean batu ziren martitzen iluntzean Juan de Iciar kultur elkarteko kideak eta Pasiñoaren antzezpenen parte hartu zuten hainbat durangar, aurtengo edizioaren aurkezpena. Txema Asategi elkartearen lehendakariak azaldu zuenez, 50.000 euroko aurrekontuagaz antolatu dute aurten Pasiñoa; Durangoko Udala du ekimenak babesle nagusia.

Apirilaren 20an, 21ean eta 22an 21:15ean izango dira antzezpenak Santa Anan, eta aurkezpenen azaldu zuten, Arco tabernan ipiniko dituzte aurten ere sarrerak zazpi euroan salgai.

Aurten 50.000 euroko aurrekontuagaz antolatu dute antzezpena

Xabier Arana izango da Jesus, eta Izaskun Astoraka Ama Birjina

Otsailean ekin zieten lehenengo irakurtaldiei eta martxotik dihardute entseguak eginen, Asategi azaldu zuenez. Antzezpenen parte hartzen duten ehun antzezleak batuko dituen entsegu orokorra, berri, apirilaren 19an burutuko ei dute.

Jesus eta Maria berriak

Iazko edizioan antzezpenaren zuzendari lanetan jardun zuen Xabier Aranak egingo du Jesusen papera, eta Izaskun Astorekak Ama Birjinarena. Lehenengo jardungo dute Aranak eta Astorekak antzezpenaren protagonista nagusi legez, baina zortzi urte dira Pasiñoan beste paper batzuetan parte hartzen dutela. "Dena berria delako", urduritasun bereziagaz bizi duela aurtengo Pasiñoaren edizioa aitortu zuen Aranak.

Orain 18 urtetik Durangoko Pasiñoa antolatzen duen Juan de Iciar elkartearen Asategi lehendakariak, Durangotik eta Bizkaitik kanpo datozenek "Pasiñoaren, Durangoren eta durangarren irudi ona eraman dezatela" dutela helburu azpimarratu zuen, eta Durangotik kanpokoek sarrerak erosi ahal izateko 656777321 telefonoa ipini dutela martxan. ■ I.E.

EKIMENA > KANTULAGUN

Apirilaren 28an, 20:00etan hasita, Iñaki Etzezarraga musikari berriztarra izango da Plateruenean aurten lehenengoz antolatu duten Kantulagun ekimenaren azkeneko gonbidatua. Urtarrila, otsaila eta martxoko Xabier Amurizaren, Josu Zabalarren eta Mikel Markez saioen ondoren, denboraldiak lau emanaldietan azkena da apirilaren 28ko Plateruenekoa.

Berbaro euskara elkarteak eta Plateruena antolaturiko ekimenaren aurreko hiru saioek oso

Harrera oso ona izan dute urtarrila, otsaila eta martxoko hiru saioek

Datorren ikasturtean jarraipena izango du aurtengo ekimenak

harrera ona izan dute herritarren artean: 120 lagunek eman dute batez beste saioetan izena, eta oso giro polita sortu da kantagintzaren aitzakian.

Euskal kantutegiko ale ezagunak biziberritzeko eta ez hain ezagunak ezagutu, ikasi eta gozatzeko modua eduki dute saioetako parte-hartzaileek. Apirilaren 28ko hitzordurako, kultura@plateruena.net helbidean egin daiteke doako izen-ematea.

Kalejiran, kantuan

Maiatzaren 28an izango dute irailera arteko azken hitzordua kantuzaleek; 13:00etan Santa Ana plazatik Plateruenerainoko ibilbidea egingo dute kantuan, eta kantu bazkaria egingo dute bertan. Ondoren, irailean, ikasturte berrian ekimenagaz jarraitzeko asmoa agertu dute antolatzaileek.

Kantulagun ekimen honen lehenengo edizioari Durangaldeko kantuzaleek egin dioten harrera beroa aitzat hartuta, beraz, jarraipena emango diote. ■ I.E.

Apirilaren 28an da kantuzaleen hurrengo zita Plateruenean

Aurten lehenengoz antolatu duten Kantulagun-en lau saioetako azkena da hilaren 28koa. Maiatzean kantu bazkaria egingo dute



LITERATURA >

Juul ekimenagaz bat egin dute Kurutziaga ikastolan

Gazteen artean irakurzaletasuna bultzatzea helburu duen programaren barruan Ikastolen Elkartek antolatzen duen Juul kanpainagaz bat egin dute apirilean zehar Durangoko Kurutziaga ikastolan. Apirilaren 14an, atzo, burutu zuten kanpainaren azkeneko ekimena.

Nazioarteko Haur eta Gazte Literatura Eguna eta Nazioarteko Liburuaren Eguna hartzen dituen hilabetearen zehar, apirilean, ipintzen dute Juul kanpainan Ikastolen Elkartearen martxan.

Ikasleek gustuko dituzten euskaraz idatzitako liburuak bozketan aukeratzea da ekimenaren ardatza: gogokoen dituzten liburuak eta dituzten ilustratzaileak hautatu dituzte Kurutziaga ikastolan ere. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

Gau Elektronikoa

APIRILAK 15 22:00etan
PATT aka Charles Ramirez
(Txitxarro/Travelling Soul Rec)
+ IKER UNDERSOUND & RUBEN COSTAS
GAU ELEKTRONIKOA. Sarrera: 12euro.

80

APIRILAK 16 18:00etan
80ko hamarkadako jolas eta jostailuekin OLGETAN
AISIALDIA EUSKERAZ. Sarrera doan.

APIRILAK 28 20:00etan
KANTULAGUN. GONBIDATUA: ETXE
Doako izen ematea.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300



DURANGO 80

Zilar astea

Apirilak 15 • 22:00
Apirilak 16 • 20:00

ILARGIAREN BI ALDEAK

Hika Teatroa
Apirilak 17 • 18:00

San Agustín
KULTUR
GUNEa
DURANGOKO UDALA



KIROLAK >

Lehia ziurtaturik egongo da 'Pedro Horrilloren Udaberriak' klasikoan



Argazkian Joseba Gorostiza, Pedro Horrillo, Niko Moreno eta Santi Garcia, klasikoa aurkezteko ekitaldian.

Bigarren urtez, Elorrioko txirrindulari elkarteak Bizkaiklasik 'Pedro Horrilloren Udaberriak' klasikoa antolatu du. Zapatuan, 16:00tan abiatuko da, kadete mailako proba garrantzitsuenetakoa den lasterketa.

Elorrioko txirrindulari elkar-teak *Bizkaiklasik Pedro Horrilloren Udaberriak* klasikoa antolatu du bigarrenaz. Lazko erantzun ona ikusita, esperientzia errepikatzea erabaki du txirrindulari elkarteak. Klasiko hau kadete mailako txirrindularitza proba bat da, eta, guztira, 39,8 kilometroko ibilbidea burutu behar dute parte-hartzaileek. Arratsaldeko 16:00etan abiatuko da txirrindulari proba, herriko plazatik; helmuga, berriz, Urkizu kalean ezarriko dute. Durangaldetik kanpoko txirrindulariak ere lehiatuko dira aurtun. Joseba Gorostiza txirrindulari elkartearen lehendakariaren berbetan, mota honetako probak herrira "hurreratzea" klasikoan antolatzeko arrazoietakoa bat da.

Gorostizaren arabera, Pedro Horrillo txirrindulari "handia" izan da, eta hori nabarmendu eta bera omentzeko asmoagaz ere antolatzen dute proba Elorrioko txirrindulari elkarteak. Horrillo ermuarra da jaiotzez, hala ere, hainbat urte darama Abadiñon bizitzen. Urte bat pasatxo egin

Aurtengo ibilbidea
Elorrio-Elorrio izango da;
39,8 kilometro ditu

12 taldetako 120
txirrindularik kadete
ariko dira proban

Harbidetan espezializatu
gura dute antolatzaileek.
3 biderrez igaroko dute

zuen Elorrioko txirrindulari elkar-tean; hortik dator hartu-eman. Horrilloren berbetan, "eskertze-koa" da ekimena.

Nobedadeak klasikoan

lazko ediziotik hona, hainbat aldaketa eta nobedade ezarri dituzte antolatzaileek. Hasteko, aldaketa nabarmen bat aurkeztu dute txirrindularitza elkarteak: laz ez bezala, aurtun Elorrioren hasi eta Elorrioren amaituko da lasterketako ibilbidea. Gorostizaren berbetan, klasikoaren herritarrengana "hurreratze" hartu dute erabaki hori. Esan bezala, antolatzaileen asmoa klasiko bat dela nabarmentzea izan da. Antolatzaileek harbidetan espezializatu gura dute proba; hiru biderrez igaroko dira txirrindulariak harrizko bidetik, eta lehenengoan tarteko helmuga puntuagarria izango da. Gorostizaren berbetan, "lasterketa lehiakor eta didaktikoa" antolatu gura izan dute.

Aldaketa horrek lehiakortasuna sustatzeaz gainera, kadete mailako talde indartsuenetakoa erakarriko ditu Elorrioren. Besteak beste, Burunda talde nafarrak eta Arabarrak aguraindarrak parte hartuko dute; txirrindulari bizkaitarrez gainera, bada, Nafarroa, Araba eta Kantabria lako lekuetatik etorriko dira. Guztira, 12 taldetako 120 txi-

rindulari inguruk parte hartuko dutela aurreikusi dutela jakin eragin dute antolatzaileek. Joseba Gorostizaren iritziz, probaren maila nabarmen du datu horrek: "Kadete mailako probetan 80 parte-hartzaile inguru egon ohi dira". Txirrindulariei dagokionez, Gorostizak

Gorostiza: "Etxekoak
aurrean ibiliko dira.
Bidea ezagutzeak
lagundu egiten du"

"etxekoan" alde egin du apustu: "Kanpokoak oso indartsu datoz, baina hemengoek bidea ezagutzen dute, eta, azken finean, horrek lagundu egiten du lasterketan zehar". Izenak aurreratzerakoan, Gorostizak hainbat izen aurreratu ditu: "Aritz Hernandez elorriarraz gainera, losu Angoitia berangoarra eta Julen Amari-rika mungiarra aurrean ibiliko dira".

lazko edizioan ez bezala, aurtun ez da emakumezkoen egongo proba; domeka goizean emakumezkoen Espainiako Kopa jokatu da Derion, eta bertan parte hartzea lehenetsi dute. ■ Aritz Maldonado.

Herri Artekoan emaitza onak lurreta, Atxondo eta Mallabiak

2011ko Bizkaiko Herri Arteko garaipenagaz hasi dute eskualdeko hiru herriek. Lurretak eta Atxondok 2-1 irabazi zuten joaneko jardunaldian. Etxean jokatu zituzten euren partiduak; Lekeito eta Bermeoren aurka lehiatu ziren, hurrenez hurren.

lazko denboraldian huts egin ondoren, garaipenagaz itzuli da Mallabia Herri Arteko-ko. Portugaleteren kontra jokatu behar izan zuten lehenengo jardunaldian mallabitarrek; 1-2 irabazi zuten. Hurrengo fasera sailkatzeko itzulerako partiduak ere irabazi beharko dituzte hirurek. ■ A.M.

Elorrio-Zuberoa errugbi partidua jokatu dute

Zapatuan Elorrio eta Durango-ko errugbi taldeetako neskek partidua jokatu dute Zuberoako taldearen kontra. Elorrioko Errekakaleko jaietako egitarauaren baitan jokatu dute partidu hori; horrez gainera, beste kirol ekimen batzuk daude antolatuta; besteak beste, pilota partiduak.

Bestalde, DRTko gazteek partidua jokatu dute bihar. Arratsaldeko 18:30etik aurrera, Getxo Artearen aurka lehiatuko dira durangarrak. Partidua Arripausuetan jokatu da. Senior mailako taldeek duela aste batzuk amaitu zuten denboraldia. 25. urteurrenako ekimenak prestatzen dihartu DRT-k azken aldian. ■ A.M.

San Prudentzio Txapelketako finalerdiak

Gaur, San Prudentzio Txapelketako finalerdiak jokatu dira. 20:30ean hasita, kadete eta gazte mailako partiduak jokatu dituzte. Lehenengoan, Altuna-Gofi eta Mugika-Aburuza bikoteak lehiatuko dira; beste finalerdian Ugalde-Imaz eta Garaio-Aldunzin bikoteek jardungo dute lehia. Gazte mailan, berriz, Varela-Atutxa eta Agirre-Apeztegia lehiatuko dira; bigarrenen, berriz, Aristimuño-Imaz eta Gallurralde-Tolosa arituko dira nor baino nor gehiago. Txapelketako finalak maiatzaren 7an jokatu dituzte. ■ A.M.



Maria Bazanek irabazi du Euskadiko 15 urtez azpiko txapelketa.

Maria Bazan garaile Euskadiko Txapelketan

Bazan gazte durangarrak Euskadiko txapelketa irabazi zuen 15 urtez azpiko mailan. Eider Vivancok, berriz, hirugarren amaitu zuen

Apirilaren 8an Erreterian ospatu zen Euskadiko Judo Txapelketa Maria Bazan durangarrak irabazi zuen; Bazan 15 urtez azpiko mailan lehiatu zen. Maila berean aritu zen Eider Vivanco durangarra ere. Vivancok, berriz, hirugarren amaitu zuen. Garaipen horri eskerrak, Bazanek euskal taldea ordezkatzeko du Espainiako Txapelketan. Txapelketa maiatzaren 6tik 8ra jokatu da Formenteran (Balear Uharteak).

Urte osoan zehar eginiko denboraldiari sari lakoa da Espainiako Txapelketan parte hartu ahal izatea Monika Muñoz Durangoko Judo Taldeko koordinatzaileetako baten berbetan. Bere arabera, bidaia esperientzia ona izango da Maria Bazanentzat: "Gure nahia Mariak jendea ezagutzea eta esperientzia disfrutatzea da, horrekin konformatzen gara". Hala ere, lehiatuko dela ere aurreratu gura dute. "Hasiera batean, gainerakoek

Maiatzaren 6tik 8ra
bitartean ospatuko da
Espainiako Txapelketa

Apirilaren 18tik 20ra
bitartean, bizikidetza
egunak antolatu dituzte

daukaten besteko aukera dauka". Bazanen emaitza goraipatzeaz gainera, taldeak eginiko lana ere nabarmendu gura izan du, Muñozek. Honen berbetan, duela zortzi urte Iñaki Salasek taldearen gidaritza hartu zuenetik asko aldatu dira gauzak. "Tal-

dea ia desagerturik zegoela hartu genuen, eta orain oso sendo gabiltza". Zortzi urte horietan harrobia lantzeari ekin diote durangarrek; Maria Bazan eta Eider Vivanco egindako apustu horren adibide garbia dira. Muñozek adierazitakoaren arabera, biak sei-zazpi urteagaz hasi ziren, eta gaur egun klubean jarraitzen dute. "Urte horietan egindako lanaren fruituak jasotzen gabiltza orain". Aurrera begira, berriz, nagusiagoen taldeak sortzea dute helburu.

Bizikidetasun egunak

Taldearen kohesioa indartzeko eta judoaz gehiago gozatzeko asmoagaz, bizikidetza egunak antolatu dituzte judo taldekoek. Hilaren 18-20 bitartean Gorozi-kara bidaiatuko dute Durangoko, Gernikako eta Getxoko judo taldeetako 30 ume inguruk. Entrenatzeaz gainera, hartu-emanak landuko dituzte. ■ A.M.

Zugaza-Artaza gogoan izango du lurretakok

Rafa Zugaza-Artaza iurretarrak joan den irailean utzi zuen lurretakoko lehendakaritza

Gaixotasun larri baten ondorioz, astelehenean hil zen Rafa Zugaza-Artaza, 58 urte zituela. Hainbat urtetan lurretakoko lehendakaria izan zen Zugaza-Artaza, eta, horrez gainera, herrian oso ezaguna zen; joan den irailean Joxean Legorbururen esku utzi zuen kargua. Zapatuan Artibairen aurka jokatu duten partidua hasi baino

'Gero arte!' leloa
izango duen kamiseta
jantziko dute jokalariek

lehenago, minutua egingo dute isilik; horrez gainera, Zugaza-Artazaren argazkia eta "Gero arte!" leloa izango duten kamisetak jantziko dituzte jokalariek.

Jon Gurutz Vázquez entrenatzailearen berbetan, taldeko kideek pena handiz hartu dute berria: "Oraindik lotu gabe badugu ere, guretzat pena bat da Rafa igoera gozatu gabe geldituko dela jakitea".

Hain zuzen ere, denboraldi bikaina osatzen dabil Vázquezek gidaturiko taldea; aurreko jardunaldian Umore Ona taldearen aurka 1-2 irabazi zuten iurretarrak. Zapatuan Artibai taldea hartuko du lurretakok Larrakozelain, 16:00etan hasita. ■ A.M.

Gotzon Gomez
•Errugbi entrenatzailea



DRTk 25 urte

Dagoeneko 25 urte joan dira Durango Rugby Taldeak bere lehenengo urratsak eman zituenetik. Sasoi hartan 1.500 pezeta eta baloi bat besterik ez genuen ondasun moduan, baina, ilusio, gogo eta animoak sekulakoak ziren! Urteak aurrera joan ahal, klubaren egitura handitzen joan da; hasieran senior taldea besterik ez zegoen, gero kadeteak eta juvenilak etorri ziren. Handik gutxira, nesken taldea eta amaitzeko hainbeste zaintzen ahalegintzen garen errugbi eskola.

Tartean ekintza eta lan ugari egin behar izan dugu -txosna jarri, erreka garbitu, jaiak antolatu, taberna zabaltzea, baina beti errugbia aurrera ateratzeko eta zabaltzeko asmoagaz. Bidelagun izan ditugun guztiei eskerrak ematea nahiko nuke. 25 urte hauetan familia handituz joan da, baina, bidean geratu direnak ere badira, eta horiek gogoratzea ere legezkoa litzateke. Ospakizun ekintzetako batzuk eginak dira, baina badira batzuk oraindik egiteke daudenak: zine-kluba datorren asteartean bukatzen da, aldizkaria Aste Santu ostean kaleratuko da, 25 urte hauek gogoratzen dituen erakusketa izango dugu San Agustinen ekainaren lehenengo bi asteetan. Batez ere, azpimarratu nahiko nuke maiatzaren 28an Landako Gunean egingo dugun bazkaria. Bertara gonbidaturik dago familia honetako kide oro: jokalaria, entrenatzaile, laguntzaile, babesle, bazkide... denok bertan elkartzea ospakizun honi amaiera polita ematea litzateke! Gogoratu, aurtan Elorrio Rugby Taldeak 30 urte betetzen dituela; hurrengo zutabean idatziko dut horretaz. Ondo izan!

Banakako aizkolari txapelketa Mañarian

19:30ean hasita, goi mailako zortzi aizkolari nor baino nor arituko dira enborrak moztzen

2011ko banakako txapelketako 5. jardunaldia Mañarian izango da; bihar jokatu da proba hori. Goi mailakoetan, 8 aizkolari arituko dira; 32 izango dira moztu beharko dituzten

enborrak. Gazteetan, berriz, hiru aizkolari arituko dira nor baino nor gehiago; hauek sei enbor mozteko izango dute helburu. Arratsaldeko 19:30ean hasita, probak 20:40 arte iraungo duela aurreikusi dute antolatzailleak.

Apirilaren bian hasi zen banakako txapelketa, Zegaman. Zegamakoaz gainera, Urrestillan, Sodupen eta Izarran burutu dira lehiak. ■ A.M.

Banakako txapelketako
bosgarren jardunaldia
izango da Mañarikoa



Argazkian txapelketan parte hartzen dabiltzan aizkolariak

Banakoagaz konformatu behar izan zuen Kulturalak

Beasainen kontra 1-1 amaitu zuen Kulturalak. Puntu horri esker, play off postuetan mantentzen da, eta aldea handitzeko aukera du bihar



Lehia bizia izan zuten durangarrek Beasainegaz. Kepa Aginako

Gori-gori dago 3. mailako laugarren taldea, azken jardunaldian play off postuetan hainbat aldaketa eman dira-eta. Zornotzak lider jarraitzen du, 68 puntugaz; Santutxugaz bana amaitu zuen partidua. Leioari 3-0 irabazi ondoren, Ses-
tao Riverrek bigarren postua berreskuratu du asteon. Etxean 1-4 galdu eta gero, Laudio hiru-

Bihar Zamudioren aurka jokatu beharko dute Intxaurrearen mutilek

garrena da. Kulturala, berriz, laugarrena da, 61 puntugaz. Liga horrela amaituz gero, igoera fasea jokatuko lukete durangarrek. Horretarako, lehenengo, Zamudioren aurka jokatu beharko dute bihar; arratsaldeko 17:00etan jokatu dute partidua, Zamudio-ko Gazituagan. Atzekoekiko aldeari eusteko, ezinbesteko dute durangarrek punturen bat poltsikoratzea. Zamudiozarrak Eibar B taldearen kontra 1-0 galtzetik datoz, eta denboraldia lasai amaitzeko beharrezko dituzte puntuak. 33. jardunaldia eta gero, Zamudio 13.a da, 38 puntugaz.

Azken jardunaldietan legez, durangarrek beharrezkoa dute puntuak poltsikoratzen jarraitzea. Aurreko domekan, bana berdindu zuen Kulturalak Beasainen aurka. Biak ala biak, goiko postuetan daude. Puntu banaketaren ondoren, bi taldeen arteko aldea berdin mantentzen da; gipuzkoarrak durangarrak baino bost puntu atzerago dau-
de sailkapenean. Liga amaitzeko bost jardunaldi geratzen direla konutan hartuta, Kulturalak igoera faseko play offa jokatzeko geroago eta aukera handiagoa du. ■ A.M.

Agirreren omenezko txapelketa, bigarrenez

Gaur hasiko da Jose Maria Agirre "Peter" zenaren omenezko txapelketa; hau ospatzen den bigarren aldia izango da. Txaber Zabala antolatzailearen berbetan, iazko erantzun "politik" bultzatu ditu bigarre-
nez txapelketa antolatzera. Guztira, 16 bikotek parte hartuko dute txapelketan, eta, iaz legez, kanporaketa sistemagaz jokatu da. Bizkaia osoko pilotari-
ek parte hartuko dute txapelketan. Besteak beste, Berriz, Markina, Lezama. Zea-
nuri eta Ortuellako pilotarien

Bizkaia osoko 32 pilotarik parte hartuko dute txapelketan

jokoaz gozatu ahalko du Ezkurdiko Jai-Alaira hurbiltzen denak. Partiduak barikuetan jokatu-
ko dituzte, arratsaldeko 19:30etik aurrera. Finala, oster-
ra, ekainean izango da.

2009ko udan hil zen Agirre; Durangoko Pilota Eskola-
gaz lotura zuen "Peterrek". Besteak beste, lehendakari eta diruzain karguak izan zituen. ■ A.M.

Agenda

FUTBOLA

OHOREZKO MAILA

Berriz - Somorrostro

Domekan, 12:30ean, Berrizburun

LEHENTASUNEZKO MAILA

Eldorrio - Urdulliz

Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden

LEHENENGO ERREGIONALA

Iurretako - Artibai

Zapatuan, 16:00etan, Larrako-zelain

ARETO FUTBOLA

NAZIONAL B MAILA

Eldorrioko Buskantza - Zarautz

Zapatuan, 18:00etan, Eldorriko kiroldegian

EUSKAL LIGA

Mallabia - Gollerri

Domekan, 17:30ean, Zaldibarko kiroldegian

PILOTA

BIHARKO IZARRAK

- Albarado - Olalde /

Azpirl - Zubiri

- Mendizabal - Aldape /

Ojuel - Irusta

Eguenean, 21:30ean, Mallabiko pilotalekuan

ERRUGBIA

GAZTEAK

DRT - Getxo Artea

Zapatuan, 18:30ean, Arripausuetan

BERRI Aren eskutik
apirilaren 16an zure kioskoan



+ 12€



CD-DVD eta
LIBURUXKA

Ene Kantak

Partehartzaileak:
Puriti eta Porrotx, Gorka Urbizu eta Galder Izaguirre (Berri TxarraK),
Urko Oskoz, Eñaut Elorrieta (Ken Zazpi), Jon Barberena, Julio Soto, Estitxu
Arozena, Asier Riesgo, Oler Sanjurjo, Mikel Labaka, Mikel Aranburu, Bittor
Alkiza, Tiko, Juan Martinez de Irujo, Gotzon Barandiaran, Nerea Urbizu...

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

zonalde "EZ" euskalduneko gurasoentzako dirulaguntza
euskal eskola publiko BERRI Aren alde



AMALURRA>



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango



Kontsumo arduratsua bultzatzeko kale izendegiaosatzen dabilta

**108 ikaslek parte hartu dute
kale-izendegiakosatzen;
Zaldibarren eta Otxandion
izango dira hurrengo saioak**

**Irakasleekin ere egin dute
kontsumoaren gainera
eztabaida, euren iritzi eta
sentsazioak jasotzeko**

Hainbat ikaslek bidezko merkataritza edota produktu ekologikoen salmenta lekuak identifikatzen dihardute

Emaus gizarte fundazioa, Durangaldeko Amankomunazgoa eta hainbat ikastetxe egitasmo berri batean murgilduta dabilta azkenaldian. Badira urte bi Emausek Durangoko Udalgaz elkarlana martxan ipini zuela; eskoletan kontsumo arduratsua eta tokiko ekoizpena landu dituzte azken bi ikasturte hauetan. Aurten, *Kontsumo arduratsua eta tokiko ekoizpena urtaroen arabera* proiektua dute esku artean. Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Aldundiak eta Durangaldeko Amankomunazgoak diruz lagundu duten proiektu "erraldoia" da.

Euren azken helburua "eguneroko kontsumo ohiturek mundu mailan eragina dutela ulertaraztea" da, eta, horren ondorioz, "ohitura horiek aldatzea".

Durangon interes handia nabaritu ei dute udaletik, eskoletatik, elkarteetatik eta kaleko jendearengandik; "horrek gure

lana indartu eta hobetzen du dudarik barik", diote.

Proiektu honegaz, Bizkaiko hainbat herriz gainera, Guatemalan eta Indian ere ibili dira ekintzak egiten, eta hurrengo astean Togora doaz. Kontsumo ohiturak beste batzuk direla-eta, "oso garrantzitsua" ei da "beste herrialde batzuetako kontsumo eta ekoizpen ohiturak ikustea eta hemen ezagutzera ematea".

Kale izendegia

Proiektu honetan parte hartzen duten herri bakoitzean kale izendegi batosatzen dabilta. Bidezko merkataritza, kontsumo arduratsua, tokiko ekoizpena eta produktu ekologikoak dituzten dendak edo sustatzen dituzten zerbitzuak sartuko dituzte izendegi horietan. Durangaldean ikasleekin dabilta kaleetan zehar denden informazioa jasotzen; "ikasleek dute kale-izendegien ardura, eta orain arte oso

ondo ibili dira", baloratu dute Emausekoek. Lorea Undagoitia teknikariaren laguntza izan dute horretarako.

Dagoeneko egin dituzte saioak Durangon, Iurretan, Elorriñon eta Abadiñon, 108 ikasle-ren partaidetzagaz. Maiatzaren 3an Zaldibarren eta 4an Otxandion izango dira hurrengoak.

Egitasmo berean, kontsumoaren gainera eztabaida egin eta irakasleen sentsazioak jaso dituzte; guztira, 84 irakaslek parte hartu dute. Ikasleen formazioari ere garrantzia berezia emanez, 140 gaztetxogaz jolas didaktiko bat burutu dute, herrietako argazkiekin puzzleak garatuz. Bestalde, ideia honetan kokatzen dira aste batzuk lehenago egindako bideo-foroak ere. Durangon, Berrizen eta Iurretan, bertako ikasleek Peruko gaztetxoekin berba egiteko aukera izan zuten bideo-konferentzia bitartez.



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak.
Eguneko menua.
Menu bereziak.
Kartan, aukerako okelak txingarretan.



Betixu Jatetxea

Iturburu 9, Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Janariak
jantokian: asteartetik igandera.
Afariak jantokian: ostegunetik
larunbatera.
Razioak terrazan.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta
martitzen gauetan itxita.





Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik
zapatura.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.

Jatetxe
gida



Jon Soloeta Huri-Barrena Jatetxea

Huribarrena 8, Otxandio
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak.
Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.



Errekondo Jatetxea

Andra Mari 1, Mañaria
Tel.: 94 681 85 77

Eguneko menua astelehenetik
ostirelera.
Asteburuetan bazkariak eta afariak
enkarguz.
Especialitatea: Txuleta errea.



Hotel Lagunetxea

Urkiolako Santutegiaren ondoan
Tel.: 94 465 60 10

Eguneko menua.
Enpresa-bilerak.
Denetariko ospakizunak.
Askariak.

Hemen agertu
gura
badozu,

DEITU

94 621 79 02

anboto.iragarkilaburrak.com

